



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Nire adimen gaitasunak berezia egiten al nau?

Izan enpatia nirekin eta eraiki dezagun bidea

elkarrekin.

EGILEA: Lorea Urkia Saiz.

TUTOREA: Lorea Kortabarria.

IKASTURTEA: 2020 / 2021.

GRADUA: Magisteritza, Lehen Hezkuntza.

DATA: 2021eko ekainaren 14an.

LABURPENA

Ezinbestekoa da Adimen Gaitasun Handiko haurrak garaiz identifikatzea eta haietako bakoitzaren ezaugarri eta premietara egokitutako hezkuntza pertsonalizatua ematea. Horretarako, funtsezkoa da estatu maila osoan identifikazio prozesua berdina izatea. Baina errealitatean identifikazio prozesua, garaia eta prebalentzia oso aldakorak dira autonomia-erkidegoaren arabera eta honek haurraren ondorio latzak ekar ditzake epe labur zein luzean. Hala, lan honetan Adimen Gaitasun Handien teoria aztertzen da, baita empatia eta gaitasun handien arteko erlazioaren inguruan sakondu ere. Modu honetan, Gradu Amaierako Lan honen xedea irakaslegoak gaitasun handien inguruan duen ezagutza eta formazioa zenbaterainokoa den ikertzea da, baita honetan zein kolektibo honengan jarrera enpatikoa izateak nola eragin dezakeen behatzea ere.

Hitz gakoak: Adimena, gaitasun handiak, empatia, hezkuntza, eskola, irakaslegoa

RESUMEN

Es imprescindible identificar a temprana edad a los niños y niñas que presentan Altas Capacidades Intelectuales para así poder darles una respuesta educativa personalizada acorde con sus características y necesidades. Para ello, es primordial que el proceso de identificación sea el mismo en todo el estado. Sin embargo, en la realidad el proceso de identificación, el momento y la prevalencia son muy variables dependiendo de cada comunidad autónoma, ésto pudiendo tener en los niños y niñas consecuencias graves tanto a corto como a largo plazo. Asimismo, en este trabajo se estudia la teoría de las Altas Capacidades junto con la relación entre éstas y la empatía. De esta manera, el objetivo final del presente Trabajo Fin de Grado es investigar cuál es el conocimiento y la formación del profesorado sobre el tema que nos aborda, probando la influencia que puede llegar a tener un comportamiento empático hacia este colectivo y en el interés de querer formarse.

Palabras clave: Mente, altas capacidades, empatía, educación, colegio, profesorado

ABSTRACT

It is essential to identify children that have High Intellectual Capacities at an early age, as a means of giving them a personalized educational response according to their characteristics and needs. To make this possible, it is paramount that the identification process is the same throughout the state. Nevertheless, in reality, the identification process, the moment, and the prevalence are very variable depending on each autonomous community. As a result, this could have serious consequences for children. Thus, this work aims to offer a comprehensive look at the theory of High Intellectual Capacities, along with the relation between these and empathy. Therefore, the purpose of this End-of-Degree Project is to investigate the knowledge and formation of teachers on the subject I am dealing with. In addition, I will try to discover the influence that empathetic behaviour can have on this collective and on the interest of wanting to educate and train.

Key words: Mind, high capacities, empathy, education, school, teaching staff

AURKIBIDE OROKORRA

1.	Sarrera / Justifikazioa	4
2.	Marko teorikoa	6
2.1.	Adimena eta gaitasun handiak	6
2.1.1.	Kontzeptualizazioa	6
2.1.2.	Terminoen azalpena	10
2.1.2.1.	Superdotazioa	10
2.1.2.2.	Talentua	10
2.1.2.3.	Goiztiartasuna	11
2.1.3.	Prebalentzia	11
2.1.4.	Adimen gaitasun handiko ikasleak	12
2.1.4.1.	Adimen gaitasun handiko ikasleen ezaugarriak	12
2.1.4.2.	Adimen gaitasun handiko ikasleen profil ezberdinak	17
2.1.4.3.	Adimen gaitasun handiko ikasleen premiak	17
2.1.5.	Mitoak eta usteak	18
2.2.	Enpatia	21
2.2.1.	Enpatiaren definizioa	22
2.2.2.	Prebalentzia	23
2.2.3.	Enpatia motak eta ezaugarriak	24
2.2.4.	Davis-en eredu integrala	25
2.3.	Hezkuntzaren garrantzia	26
2.3.1.	Irakaslea eta formakuntza	26
2.3.2.	Eskolaren papera	30
3.	Marko praktikoa	33
3.1.	Helburuak	33
3.1.1.	Helburu orokorra	33
3.1.2.	Helburu espezifikoak	33
3.2.	Partehartzaileak	34
3.3.	Erabilitako tresnak	37
3.3.1.	Galdetegi kualitatiboa	37
3.3.2.	Galdetegi kuantitatiboa	37
3.4.	Ikerketaren diseinua eta prozedura	39
4.	Emaitzak	39
5.	Ondorioak eta eztabaidak	53
6.	Gatazkak eta irtenbideak	58
7.	Erreferentzia bibliografikoak	60

8.	Eranskinak	65
	1. Eranskina: Ad-HOC galdetegi kualitatiboa	65
	2. Eranskina: IRI galdetegi kuantitatiboa	66
	3. Eranskina: Gaitasun Handiko gazte bati egindako elkarrizketa	68
	4. Eranskina: Gaitasun Handiko gazte bati eta bere amari egindako elkarrizketa	71
	5. Eranskina: ALCAGI elkarteari egindako elkarrizketa	78
	6. Eranskina: AUPATUZ elkarteari egindako elkarrizketa	83
	7. Eranskina: Adimen Gaitasun Handien inguruko dokumentu batzuk	88

IRUDIEN AURKIBIDEA

1.	Irudia: Hiru eraztunen eredua. Renzulli (1977)	9
----	--	---

TAULEN AURKIBIDEA

1.	Taula: Ikerketaren helburuak eta hauetako bakoitzaren hipotesiak	34
2.	Taula: Interpersonal Reactivity Index-en emaitzen interpretazioa (Davis, 1980)	38
3.	Taula: Ad-HOC galdetegi kualitatiboa: galdera soziodemografikoak eta irekiak	40
4.	Taula: Irakasleen enpatia maila Davisen lau eskalen arabera	43
5.	Taula: Helburuak, hipotesiak eta emaitzak	53

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1.	Grafikoa: Irakasleen sailkapena generoaren arabera (ehunekotan)	35
2.	Grafikoa: Irakasleen sailkapena adin tartearen arabera (ehunekoatan)	35
3.	Grafikoa: Irakasleen sailkapena hezkuntza zentroaren arabera (ehunekotan)	36
4.	Grafikoa: Irakasleen sailkapena maila akademikoaren arabera (ehunekotan)	36
5.	Grafikoa: Irakasleen sailkapena hezkuntzan lanean daramatzaten urte kopuruaren arabera (ehunekotan)	36
6.	Grafikoa: Irakasleen ezagutza maila gaitasun handien inguruan	42
7.	Grafikoa: Irakasleen formakuntza gaitasun handien inguruan	42
8.	Grafikoa: Perspektiba-hartzearen eskala eta irakasleen formakuntza	45
9.	Grafikoa: Perspektiba-hartzearen eskala eta irakasleen ezagutza maila	45
10.	Grafikoa: Fantasiaren eskala eta irakasleen formakuntza	47
11.	Grafikoa: Fantasiaren eskala eta irakasleen ezagutza maila	47
12.	Grafikoa: Ardura enpatikoaren eskala eta irakasleen formakuntza	49
13.	Grafikoa: Ardura enpatikoaren eskala eta irakasleen ezagutza maila	49
14.	Grafikoa: Ezinegon pertsonalaren eskala eta irakasleen formakuntza	51
15.	Grafikoa: Ezinegon pertsonalaren eskala eta irakasleen ezagutza maila	51

1. SARRERA / JUSTIFIKAZIOA

Jarraian aurkeztutako Gradu Amaierako Lana (GrAL) ikerketa batean oinarritzen da, zehazki Adimen Gaitasun Handien inguruan hezkuntza arloko adituek zenbaterainoko ezagutza eta formakuntza duten aztertzean.

Ikerketa hau burutzera eraman nauten arrazoiak ugariak izan dira, baina pisu gehien nire buruari egindako galderek eduki dute: Zer da Adimen Gaitasun Handiak izatea? Nola eragiten du haur baten ongizatean (alderdi sozio-afektiboan, kognitiboan eta fisikoan)? Zeintzuk dira ikasle hauen ezaugarriak eta beharrizanak? Hezkuntzak erantzun egokia ematen ote dio kolektibo honetako ikaslegoari? Zergatik? Nolako formakuntza daukate irakasleek? Formakuntza mailak eragina ote dauka ikasleen identifikazio prozesuan? Irakasle goa kolektibo hau ulertzeko gai ote da? Era berean, ikasleen beharrizanak identifikatu, entzun eta asetzeko gai ote dira irakasleak? Eta horrela jarrai dezaket.

Galdera sorta handi honen aurrean, aukera paregabea iruditu zitzaidan nire Gradu Amaierako Lana bide hontatik bideratzea. Betidanik izan dut gai honekiko jakinmina. Baliteke interes honen arrazoia izatea txikitatik orain arte nire inguruan honelako pertsonekin harremantzeko aukera izana, baina baita gizartean eta bereziki, hezkuntzan, Adimen Gaitasun Handien inguruan dagoen ezagutza eta formakuntza urria ere. Lehen Hezkuntzako irakaslea izango naizen heinean, nire prozesu akademiko guztian zehar bestelako gaixotasunen, patologien, urritasunen, ezgaitasunen eta jarrera nahasmenduen inguruko gutxieneko informazioa jaso dudana bezala, Adimen Gaitasun Handien inguruan zertxobait ikasi izana gustatuko litzaidake. Ezagutza falta honek eraman nau lan hau egitera, nire buruari ezarritako helburu nagusia gaian murgilduz ezagutzak aberastea izanik, bereziki gizarteak gaitasun handien inguruan sortutako mitoak eta usteak deusestatzeko.

Horrez gain, irakasleak garrantzia handia du irakas-ikaskuntza prozesuan, baita ikasleen garapen akademikoan ere. Irakasle batzuk ikasleen bizitzan arrasto nabaria uzteko gai dira, baina inoiz pentsatu al duzu zein den horren arrazoia? Agian erantzuna enpatian dago (Moreno, 2019). Finlandiako Turku hiriko Unibertsitatean eta Jyväskylä Unibertsitatean burututako “Lehen Urratsak” ikerketak dio (2018) enpatiaren balioak berebiziko indarra daukala ikasleengan, hauen motibazioa, estimulazioa eta garapen akademikoan modu baikorrean eragiten duelarik. Enpatia pertsona batek beste baten egoera eta sentimenduak bizitzeko duen gaitasuna da, gizaki sozial bezala funtsezkoa den baloreetako bat izanik (Montaner, 2007). Izan ere, norbaitek besteenganako enpatia sakona erakustean, energia

defentsiboa murriztu egiten da, honen lekua energia baikorrak hartuz. Une honetan da arazo-ebazpenetan sortzaileagoa izan zaitezkeenean (Covey, 2019).

Orobat, lanean zehar enpatiaren ikuspuntua eta garrantzia hezkuntzako adituei bideratuta dago bereziki, irakasle bezala oinarrizkoa baita ikasle bakoitzaren azalean jartzen jakitea, hauetako bakoitza mundu bat baita, guztiek entzunak, ulertuak, errespetatuak eta lagunduak izateko eskubidea dutelarik (Lehen Urratsak, 2018). Gainera, gaitasun handiko ikasleek adimen-koziente altua izatearren laguntzarik behar ez dutela pentsatzea uste okerra da. Hezkuntza premia bereziak ematen direnean ez da beti urritasunen baten ondorioz izan behar, nahiz eta askotan horrela den. Gaitasun handiko ikasleek behar bereziak dituzte eta hortaz, irakaslegoa prest egon behar da erantzun egoki bat emateko (Berritzegunea, datarik gabe).

Lanaren egiturari dagokionez, hiru bloketan sailkatzen da. Lehendabizi, sarrera / justifikazioa legoke, non gaia hautatzearen arrazoia, ikerketaren beharra eta honek guztiak gizartean, hezkuntzan zein ikasleengan duen eragina azaltzen diren. Bigarrenik, marko teorikoa legoke, non Adimen Gaitasun Handien teoria aztertzen den enpatiak hezkuntzan duen indarraren inguruan sakontzearekin batera. Azkenik, marko praktikoa legoke, non metodologiaz hitz egiten den: aztergai dugun gaiak, helburuez, hipotesiez, partehartzaileez, erabilitako tresnez, diseinuaz eta prozeduraz. Halaber, hurrengo puntuak azken bloke honi lotuta legozke, non ikerketaren emaitzak, ondorioak eta irtenbideak aipatzen diren.

Oro har, burututako ikerketaren bidez, irakaslegoak Adimen Gaitasun Handien inguruan zenbaterainoko formakuntza duen aztertu nahi da, ezagutza horren arabera errazagoa edo zailagoa izango baita gaitasun handiko ikasleak identifikatzea. Baina formakuntza hori noren esku dago? Egungo irakaslegoak ezagutzarik ote du Adimen Gaitasun Handien inguruan? Zenbaterainoko enpatia erakutsiko du irakaslegoak? Enpatia mailak eragina ote du ikasleengan eta irakasleen formakuntzan? Irakaslegoa gai ote da ikasleen beharrak eta nahiak identifikatzeko, ulertzeko eta asetzeko?

Funtsean, irakaslegoak gero eta jarrera enpatikoagoa izan, errazago jarriko da ikasleen tokian -kasu honetan gaitasun handiko ikasleen lekuan-, eta ondorioz, laguntzeko beharra sentitzearekin batera, haietako bakoitzari egokitutako hezkuntza-erantzun egokia emateko premia izango dute irakasleek. Modu honetan, ezjakintasunetik abiatuta, formatzeko beharra ikusi eta ezagutza berri zein errealak bereganatuz, Adimen Gaitasun Handien inguruan dituzten mito eta usteak deuseztatzen joango dira (Carmona, 2021).

2. MARKO TEORIKOA

2.1. ADIMENA ETA GAITASUN HANDIAK

2.1.1. KONTZEPTUALIZAZIOA

Adimen-gaitasunaz hitz egitean, adimenaz hitz egiten da. Adimena gaitasun multzoa da eta ingurura moldatzeko ahalmena eskaintzen digu (Piaget, 1952). Beste eraikuntza asko bezala, adimena paradigma psikologiko desberdinetatik aztertu da, baita ikuspuntu desberdinetatik ere. Adimenari dagozkion ereduak eta kontzeptuak aldatzen joan dira hamarkada hauetan zehar eta gaur egun, definizio estatikoak (funtsean adimen-kozientearen neurketan oinarrituak) alde batera uztearen alde egiten da, ikuspegi neurokonstruktibista batean oinarritutako dimentsio anitzeko ikuspegi bat sustatuz eta gaitasunen garapenari lehentasuna emanez (Cross, 2011; Pfeiffer, 2012; Sastre-Riba eta Fonseca-Pedrero, 2019; Sastre-Riba eta Pascual-Sufrate, 2013). Era honetan, adimena bizitza osoan zehar garatzen doan ezaugarri dinamiko eta aldakor bat bezala ezagutzen da (Gardner, 1983), adimenaren garapenean hurrengo faktoreek eragiten dutelarik: herentzia genetikoak, inguruneak eta alderdi kualitatibo pertsonalek.

Urteak igaro ahala, ikuspegi neurokonstruktibista hori adimenaren ikerketan garrantzi handia duten hurrengo ekarpenekin hornitu da, besteak beste: Guilford-en adimen-eredua (1967), sormenaren garrantzia jasotzen duena eta Renzulli-ren hiru eratzunen eredua (1977), adimena adimen-gaitasunen, zereginarekiko motibazioaren eta sormenaren arteko interakziotzat hartzen duena. Dena den, paradigma aldatzeko funtsezkoak izan dira honako hauek: Sternberg-en ekarpenak (1985, 1995), Gardner-en adimen anizkoitzaren teoria (1983) eta Gagné-ren teoria (2005).

Nolanahi ere, zaila da esanahi bakarra eta zehatza aurkitzea kontzeptu hau definitzeko, baina ugaritasun horren baitan, oihartzun handiena Howard Gardner (1943) psikologoak egindako ikerketak dira, bereziki adimen anizkoitzaren teoria (1983). Teoria honek adimen bakarra dagoela ukatzen du, adimen-sorta gutxienez zortzi aldaeratan bana daitekeela defendituz:

- **Adimen zinetiko-korporala (kinestesikoa):** gorputzaren eta honen atal batzuen laguntzaz, arazoei irtenbidea emateko eta objektuak aldatu edo sortzeko gaitasuna da.

- **Adimen logiko-matematikoa:** gaitasun logikoa, matematikoa eta zientifikoa da.
- **Adimen musikala:** musika-formak sortzeko, identifikatzeko, aldatzeko, aztertzeko eta interpretatzeko abilezia da.
- **Adimen ikusmen-espaziala:** espazioaren irudikapen mentalak sortzeko eta bertan jarduteko gaitasuna da.
- **Adimen linguistikoa:** hizkuntza erabiliz ingurua ulertzeko, interpretatzeko, sortzeko edo adierazteko trebetasuna da.
- **Pertsona arteko adimena (interpertsonala):** gainontzekoak ulertzeko eta haiekin harremanak sustatzeko ahalmena da, haien motibazioak, asmoak eta gogo-aldarteak ulertzekoa, alegia.
- **Pertsona barruko adimena (intrapertsonala):** norberaren emozioez eta sentimenduez jabetzeko gaitasuna da, norberaren buruaren benetako eredu bat sortzeko eta bizitzan jokatzeko ahalmena eta era berean, helburuak finkatzeko eta trebetasunak, gabeziak eta premiak balioesteko gaitasuna.
- **Adimen naturalista:** natura ezagutzeko eta interpretatzeko ahalmena da.

Dena den, datara arte, Howard Gardnerrek eta Harvard Unibertsitateko bere taldeak beste lau adimen mota identifikatu dituzte: emozionala, existentziala, sortzailea eta koolaboratiboa. Adimen hauek zerikusi handia dute haurrari garapenean aurkezten eta eskaintzen zaizkion aukeretan, beraz, ezinbestekoa da ulertzea haur bakoitza mundu bat dela eta denok ez ditugula berdin garatzen gaitasun horiek (Gardner, 1983).

Oro har, Stenberg psikologoaren (1985) ikasketen helburua da pertsona adimentsuen garapeneko tresnen eraginkortasuna ulertzea. Hala, teoria triarkikoan hiru prozedura lantzen dira: adimen analitikoa, sortzailea eta praktikoa. Analitikoa arazoak ebazteko eta ideien kalitatea epaitzeko erabiltzen da. Sortzailea arazo onak eta ideia on zein berriak sortzean oinarritzen da eta praktikoa, ordea, ideiak eta irtenbideak aplikatzean. Psikologoaren aburuz, "hiru adimenak elkarri lotuta daude, eta ezinbestekoak dira adimen arrakastatsu bat izateko, bai eta adimen-mota guztietarako ere". Dena den, teoria honek hiru azpioragai bereizten ditu ezagutza eskuratzerakoan eta informazio berria erabiltzerakoan: kodetze selektiboa, konbinazio selektiboa eta konparazio selektiboa. Azpiteoriei erreparatuz, hurrengo hirurak bereizten dira:

- **Osagaien azpитеoria:** adimenenean esku hartzen duten prozesu mentalen inguruko informazioa ematen du eta honako osagaiak barne biltzen ditu: metaosagaiak (gainerako osagaiak kontrolatzen dituzten egikaritzea-prozesuak), egikaritzea-osagaiak eta ezagutzak lortzeko osagaiak.
- **Esperientziaren azpитеoria:** adimenarekin eta bizitzako esperientziekin erlazionatuta dago eta aurretik aipatutako osagaiak berrikuntzei aurre egiteko eta informazioa automatizatzeko erabiltzen dira.
- **Testuinguruaren azpитеoria:** adimena eta pertsonaren kanpoko mundua barne hartzen ditu, ingurunea egokitu, hautatu eta egituratzeko mekanismoak aipatuz. Gainera, hainbat kulturatan adimentsutzat hartzen diren jokabideak eta arazoak konpontzeko erabiltzen diren trebetasunak deskribatzen ditu.

Psikologoaren esanetan, “goi-mailako errendimenduan prozesu kognitibo zehatzak erabiltzen dira informazioa prozesatzeko, berritasunari aurre egiteko edo arazoak konpontzeko”. Halaber, aurrerago ateratako teoria pentagonalean oinarrituz (Stenberg eta Zhang, 1995), bost irizpide proposatu zituzten gaitasun handiak deskribatzeko: bikaintasunaren irizpidea, arrarotasunaren irizpidea, emankortasunaren edo produktibitatearen irizpidea, frogapenaren irizpidea eta balioaren irizpidea.

Gagné-ren teoriari dagokionez (2005), talentuak garatzeko prozesua ahalmena bikain garatutako trebetasun bihurtzeko prozesua da, pertsonen arteko prozesuen, giro-faktoreen eta zoriaren eraginarekin.

Halaber, goi-mailako lorpenetan parte hartzen duten ezaugarriak azpimarratzeko, Renzulli-ren aberaste-eredu triadikoa edo hiru eraztunen eredua legoke (1977), bereziki errendimenduan oinarritzen dena, hots, adimena adimen-gaitasunen, zereginarekiko motibazioaren eta sormenaren arteko interakzioetat hartzen duena. Beste era batera esanda, eredu honen oinarriak hurrengo hiru ezaugarriaren konbinaketaren ondorioa dira:

Lehenengo eraztunak (gaitasunak) batez bestekoaren gainetik dagoen trebetasun orokorrari edo espezifikuari egiten dio erreferentzia. Bigarren eraztunak sormen handi baten beharri egiten dio erreferentzia eta hirugarren eraztunak, aldiz, zereginekiko arduraren eta motibazio handiari egiten dio erreferentzia. Beraz, aditu honen aburuz, supergaitu batek aipatutako hiru ezaugarri horiek izan behar ditu (Renzulli, 1977).



1. Irudia: Hiru eraztunen eredua. Renzulli (1977)

Ekarpen horien guztien bidez, agerian geratzen den adimenaren dimentsio-aniztasunaren ondorioz, adimen-gaitasun handiak dituzten pertsonen profil heterogeneoak agertzen dira, eta horrek zaildu egiten ditu identifikazio-prozesuak. Izan ere, kolektibo hau ez da talde homogenea, gaitasun handiko ikasleen artean ere aniztasuna baitago eta ondorioz, ezinbestekoa da eskainiko zaien laguntza eta emango zaien hezkuntza-erantzuna ikasle bakoitzaren errealitatera egokitzea, hau da, ezaugarri, premia, gaitasun eta interesetara, beti ere inklusioan oinarrituta, noski. Gainera, abenduaren 9ko, hezkuntza arloko, 8/2013 Lege Organikoaren arabera, Adimen Gaitasun Handiko ikasleak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasletzat jotzen dira, gizartean ideia hau zabaldua ez dagoen arren. Era honetan, gizarteko gehiengoa jabetzen ez den arren, funtsezkoa da ulertzea kolektibo honek beharizan akademikoez gain, premia emozional eta sozialak ere dituela.

Hildo beretik jarraituz, adimen-gaitasun handiak dituzten pertsonen familiak, gizarte-eta kultura-giroak eta hezkuntza-ereduak askotarikoak dira, eta pertsona horiek desberdintasun indibidualak agertzen dituzte lorpen akademikoei eta garapen sozialei, emozionalei zein kognitiboiei dagokienez. Hala, gaitasun handiko pertsonen talentu desberdinak direla medio, garapen-ibilbide ezberdinak egiten dira, bai hasteko uneari bai lorpen garrantzitsuak agerian geratzen diren uneari dagokienez. Nolanahi ere, eskolak eta

gizarteak eskaintzen dituzten aukerak funtsezkoak dira talentu horiek garatzeko eta gauzatzeko (Subotnik, Olszewski-Kubilius eta Worrell, 2011).

Horrez gain, adimen-gaitasun handiko ikasleengan bi mota bereizten dira: gaitasun ugariak eta gaitasun zehatzak. Lehenengo multzoan goi mailako errendimendua dutenak eta edozein arloetan onak direnak legozke. Bigarren multzoan, aldiz, sozializatzeko trebetasuna dutenak legozke (Hezkuntza Premiak, datarik gabe).

Nolanahi ere, hamaika dira adimen gaitasun handien inguruan hitz egiteko erabiltzen diren terminoak eta ondorioz, kontzeptu horiek guztiak barnebiltzen dituen terminoa litzateke "adimen gaitasun-handiak". Dena den, oinarrizkoa da honen barruan sartzen diren kontzeptu esanguratsuenak ulertzea eta bereiztea, askotan esanahi berbera ematen zaielako guztiei. Hainbat autorek gaitasun handien inguruan burututako ikerketei erreparatuz (Castro, 2008; Fernández, 2015; eta Llata, 2015), hurrengo sailkapen terminologikoa ezagutzen da adimen gaitasun handiko ikasleak definitzeko: superdotazioa, talentua eta goiztiartasuna.

2.1.2. TERMINOEN AZALPENA

2.1.2.1. SUPERDOTAZIOA

Ikasle hauek arlo edo gai guztiak erraztasunez ikasteko abilezia dute, gaitasun guztietan edo gehienetan errendimendu intelektual altua erakusten baitute. Gainera, desberdintasunak kualitatiboak dira, hots, atazei gainontzekoek ez bezala egiten diete aurre (Castro, 2008; Fernández, 2015).

2.1.2.2. TALENTUA

Ikasle hauek arlo jakin batean, batzuetan edota alderdi kognitibo zein prozesaketa-mota batean erakusten dute errendimendu handia, beste eremu batzuetan errendimendu ertain edo baxua erakusten duten bitartean. Castelló eta Battleren (1998) aburuz, talentuzko ikasleak bi multzotan sailka daitezke: batetik, talentu bakunak eta anizkoitzak, hau da, matematikoa, logikoa, soziala, sortzailea eta ahozkoa; eta bestetik, talentu konplexuak, hots, akademikoa eta artistiko-figuratiboa (Castelló eta Battle, 1998).

2.1.2.3. GOIZTIARTASUNA

Ikasle hauek beraien adin kronologiko bereko beste hurrek baino garapen ebolutibo handiagoa daukate eta ondorioz, ezagutzak zein abileziak lehenago jaso edota erakutsi ditzakete. Superdotatuen edota talentudunen antzeko ezaugarriak erakusten dituzte haien adineko hurrek baino lehenago, baina bereziki nerabezaroan ezberdintasun horiek orekatu egiten dira. Beraz, argi eduki behar da haur goiztiarra ez dela zertan superdotatua izan behar, baina superdotatu gehienak (ez guztiak) goiztiarrak dira (Fernández eta Llata, 2015).

2.1.3. PREBALENTZIA

Adimen Gaitasun Handietaz hitz egiterakoan, 120tik gorako adimen-kozientez dihardugu, baina adimen-kozientea 130ekoa edo hortik gorakoa bada, superdotazioaz hitz egiten da (eMS, 2021).

Halaber, biztanleriaren %10 eta %15 artekoa da Adimen Gaitasun Handiko pertsonen prebalentzia, baina superdotatuen %3 soilik identifikatzen da modu zuzen eta egoki batean (Hernandez, 2017). Gainera, ebaluatuak izango diren 4-5 haurretatik bakarra da neska (Carmona, 2021), baina honek ez du esan nahi gaitasun handiko mutil gehiago dagoenik. Izan ere, balidatutako hainbat galdetegi eta frogatutako ikerketa ugariei erreparatuz, orokorrean nesken izaera barnerakoiagoa da, hots, nahiago dute ezkutuan gelditu kideen artean nabarmendu beharrean eta horretarako, oharkabean igarotzen dituzte orduak, gaitasun horiek isilpean gordetzeko asmoarekin. Aldiz, orokorrean mutilak kanporakoiagoak direnez, beti nabarmendu nahi izaten dute eta ondorioz, neskak baino errazago identifikatzen dira (Carmona, 2021).

Hildo beretik jarraituz, adimen-kozientea 120 ingurutik aurrerakoa edukitzean hezkuntza premia bereziak agertu ohi dira eta beharizan hauek ez badira modu egoki batean asetzen, abantaila bat izan beharrean, handicap handia izan daiteke alderdi emozional eta sozialean bereziki. Izan ere, "mito eta usteak" atalean aipatuko den bezala, haur hauek gaitasun handikoak direnez, laguntzarik behar ez dutela uste du gizarteak, eta eskolen kasuan, dena haien kabuz egingo dutela sinisten da, inoren laguntzarik gabe aurrera irtetzeko gai direla pentsatuz. Honelako aurreiritzi eta jarreraren eraginez, kolektibo honetako ikasle askok (%70 inguruk) ez du etekin nahikorik ateratzen eskolan eta ondorioz, porrot eskolarrean erortzen dira, ia erdia unibertsitatera iritsi gabe geldituz (Hernandez, 2017). Gainera, honek guztiak eragin handia izan ohi du norberaren autokontzeptuan eta

autoestimuan, ondorio latzagoak ekarriz: gatazka emozionalak, zailtasun sozialak eta kognitiboak.

2.1.4. ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEAK

2.1.4.1. ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEEN EZAUGARRIAK

Pertsona bakoitza mundu bat da eta gaitasun handiko biztanleria oso heterogeneoa denez, oso zaila da ezaugarri guztiak batzea (Aretxaga, 2013). Izan ere, kolektibo honetako bakoitzak elkarri eta ingurune sozial zein kulturalari eragiten dioten ezaugarri batzuk erakusten ditu, hauen arabera, gaitasunak gehiago edo gutxiago garatuz. Gainera, ezaugarri garrantzitsuenak eremu desberdinetan agertu ohi dira, hala nola kognitiboan, sozialean, emozionalean eta fisikoan, baita testuinguru anitzetan ere: etxean, eskolan, kalean, bizi diren komunitatean... Hala ere, gaien adituak diren autoreen lanetan eta ikerketetan oinarrituz, hurrengoak dira ikasle hauengan nabarmentzen diren ezaugarriak (Aretxaga, 2013; eta Calero, García eta Gómez, 2007):

Ezaugarri kognitibo-intelektualak:

- Adimen-gaitasun handia duten haurrak eraginkortasun kognitibo handiaren jabe dira, non adimen mentala kronologikoa baino azkarragoa duten.
- Ohi baino arinago iristen dira heldutasunera.
- Jakin-min handia eta ikasteko gogo handia erakusten dute txikitatik.
- Oso jarrera aktiboa, bizkorra eta kontzentratzeko trebezia handia dute.
- Ikasteko irrika eta ahalmen handia daukate, hau azkar egiteko gai izanik, bereziki haien interesekoa bada. Bestela, oso erraz galtzen dute arreta.
- Sarritan induktiboki ikasten dute, informazio ezberdinaren artean loturak eginez.
- Gai zehatz bati buruzko ezagutza handiak izan ditzakete.
- Alor batean edo gehiagotan ezagutza orokorren erabilera paregabea daukate.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

- Epe luzerako oroimen nabarmena daukate eta gauzak gogoratzeko oroitzapenak berreraikitzen dituzte horiek berreskuratu beharrean.
- Haien adinerako hiztegi oso aberatsa, zabala eta handia daukate, baita oroimen bikaina eta irakurketa hutsean oinarritutako informazio barneraketa paregabea ere.
- Hizkuntza ezin hobeto erabiltzeko gai dira, modu zehatz eta aberatsean. Hala, mezu zehaztugabe edo anbiguoak agertzean, jarrera sentikorra erakuts dezakete.
- Batzuk euren kabuz eta gainontzeko kideek baino arinago ikasten dute irakurtzen.
- Sarri, arinago aurkitzen dituzte ezohizko harremanak konbentzionalak baino.
- Estrategia metakognitibo hobeak dituzte. Modu honetan, adibide zehatzetatik arau orokor, konplexu eta abstraktoetara igaro daitezke. Honela, ezagutzak egoera berrietara eraman eta arazo-egoerak maila altuan ebazteko gai dira.
- Pentsamendu kritiko eta autokritiko handia erakusten dute, izugarritzko pertzepzio- eta intuizio-gaitasuna izanik.
- Arauekiko jarrera kritikoa dute, etengabe hauen zergatiak jakin nahi izaten dutelarik.
- Pentsamendua euren adineko haurrek baino sinbolikoagoa eta abstraktuagoa dute.
- Ikasle hauen garuna gainontzekoena baino azkarrago doanez, pentsatzerakoan aldagai gehiago hartzen dituzte kontuan.
- Maila sortzaile handiari esker, arazo-egoerak modu originalean ebazteko gai dira eta horretarako irudimenaz eta fantasiaz baliatzen dira.
- Sormen eta irudimen handia, aberatsa eta malgua dute. Hartara, gai dira arazoak beste ikuspuntu batetik begiratu eta hauei irtenbideak emateko.
- Interes- eta hobbie-sorta handia daukate.
- Konexio oso sakonak egiten dituzte.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

- Arrazoiketa bikaina daukatenez, arrazoi konplexuak eman ditzakete eta hainbat gertaera zein egoeren arteko loturak ulertzeko gai dira.
- Hausnarketarako gaitasuna daukate, baita pentsamendu etiko eta moral goiztiarrak egiteko joera ere.
- Borondate handia dutenez, haien kabuz motibatzen dira, bereziki besteekiko desberdina den pentsamendu, irizpide eta balore propioekin.

Ezaugarri emozionalak eta sozialak:

- Oso sentikorrak dira eta emozio biziak erakusten dituzte, baina pentsamendu independenteari esker, uste osoa dute eurengan.
- Intentsitate emozionala eta gainkitzikakortasuna daukate.
- Emozioak eta sentimenduak arrazionalizatzen dituztenez, etengabe jartzen dituzte zalantzan ezarritako arauak.
- Enpatiarako gaitasuna oso garatua dutenez, erraz jartzen dira beste pertsonen lekuan eta ondorioz, ezin dute gizagabekeriekin, ezta injurtziekin ere.
- Jarrera enpatikori esker, beti besteen lekuan jarri eta laguntzeko beharra sentitzen dute.
- Perfekzionistak direnez, norberaren buruari estandar altuak ezartzeko ohitura daukate.
- Perfekzionistak direnez, itxaropen altuak egiten dituzte haien autokontzeptuarekiko.
- Haur hauengandik asko espero denez, kale egiteko beldurra dute. Beldur hau lorpen akademikoetan, sozialetan eta pertsonaletan sortzen da. Ondorioz, ezinegona, frustrazioa eta autoestimu baxua eragiten da haiengan.
- Zereginak era egokian egiteko eta gauzak hobetzeko joera dute, euren horretan jo eta ke ekiteko jarraikortasuna erakutsiz.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

- Ideia konplexuak eta abstraktuak ulertzeko gai diren arren, oso sentiberak dira ulertzen ez dutenarekiko.
- Frustrazioarekiko tolerantzia baxua daukate eta honek haien autokontzeptuan modu negatiboan eragin dezake, bereziki haien helburuak modu zuzenean egitea lortzen ez dutenean.
- Autoestimu arazoak dituzte eta haien buruarekin ongi sentitzeko, arrakastaren beharra dute, ingurukoen onarpena eta errekonozimenduarekin batera.
- Gidaritza gaitasuna eta protagonismo grina daukate.
- Euren adinarekin bat ez datorren umore-sen handia, landua eta sarkastikoa daukate.
- Haien kideekin harremantzeko zailtasunak izan ditzakete. Izan ere, batzuetan onarpen sozial urria jasan dezakete haien hiztegiak bere adineko gainontzeko kideenarekin talka egiten baitu.
- Kasu batzuetan, nahiago dute adin nagusiagoko lagunak izan, hauekin errazago harremantzen baitira.
- Gurasoekin harreman zailak izan ditzakete elkarren arteko interes desberdinak direla medio.
- Askotan “esna amesten” edo “beste mundu batean” daudela dirudi, baina une une oro dakite zer gertatzen ari den, eta galdera bat eginez gero, erantzun zuzena emateko gai dira.
- Dituzten kezkek eta interesak ez datoz bat haien adinarekin, nagusiagoak diren haurrekin baizik.
- Aparteko interesa erakusten dute eguneroko edo gaurkotasuneko arazoengatik inguruan.
- Txikitatik arduratzen dira munduko gizarte-arazoetatik, esaterako hurrengoetatik: klimaz, bidegabekeriez, gerrez, gosez, ekologiaz... gai hauen inguruko ezagutza handia erakutsiz.

- Izaera filosofikodun galderak planteatzen dituzte maiz.

Horrez gain, Monjasen (2011) arabera, gaitasun sozialen barruan hurrengo osagaiak daude:

- **Osagai kognitiboak:** pentsatzen dudana; nire buruari diodana; irudikatzen dudana.
- **Osagai emozionalak:** sentitzen dudana; gorputzezko sententzioak.
- **Jokabidezko osagaiak:** esaten dudana; egiten dudana.

Ezaugarri fisikoak:

- Garapen motorra adimen garapena baino motelagoa da.
- Pentsamendua gaitasun fisikoa baino bizkorragoa da. Ondorioz, pentsamenduak modu idatzian plazaratzeko zailtasunak izaten dituzte, ez dutelako nahi bezain azkar idazten eta akats oktografikoetan erortzen dira lan zikinak aurkeztuz.

Ezaugarrien sailkapena burututa, garrantzitsua da Chan (2003) adituak gaitasun handiko ikasleekin Hong Kongen burututako ikerketaren emaitzei erreparatzea. Ikerketa honen sailkapena generoaren araberakoa da, non desberdintasun nabariak eta esanguratsuak ikusi ziren: emakumeen puntuaketa askoz altuagoa izan zen adimen emozionalean, zehazki hautematean, autoerregulazioan eta emozioen erabilera eraginkorragoan.

Laburbilduz, ondoriozta daiteke banakako aldakortasun handia dagoela gaitasun handiko haurren artean. Honek agerian uzten du beharrezkoa dela antzemate, lanketa eta jarraipen hezigarria kasu zehatz bakoitzaren ebaluazio indibidualetik abiatzea. Halaber, eskolaren eta familiaren zeregina da ezaugarri hauek ezagutzea eta ulertzea, ikasle bakoitzaren beharrezko erantzun hezitzaile egokia, zehatza eta indibiduala emateko. Ikasle bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere egoerara egokitutako hezkuntza-eskaintza behar du, beti inklusioan oinarritzen dena (Eusko Jaurlaritza, 2019-2020).

2.1.4.2. ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEEN PROFIL EZBERDINAK

Aurreko puntu guztiak aintzat izanik eta kasle hauen artean izugarritzko aniztasuna egon daitekeela kontuan hartuz, Castrok (2008), zazpi profil ezberdin bereizten ditu ikasle hauen artean:

- Haur arrakastatsuak edo eskola errendimendu egokidunak.
- Eskola errendimendu baxua duten haurrak.
- Kulturalki ezberdinak diren haurrak.
- Gelan oharkabe pasatzen diren haurrak.
- Erronka ematen duten haurrak edo haur sortzaileak.
- Elkarren artean erlazionatutako gabeziak dituzten haurrak.
- Haien kabuz ikasten duten haurrak.

2.1.4.3. ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEEN PREMIAK

Adimen Gaitasun Handiko haurren beharrianak norberaren gabezietatik edota trebezietatik ager daitezke, biek ongizate integralean eraginez, hots, osasun kognitiboan, emozionalean, sozialean eta fisikoan. Hori dela medio, ezinbestekoa da haur bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak ezagutzea (Elices, Palazuelo eta Del Caño, 2006), eskainiko zaion hezkuntza eta laguntza beti haletako bakoitzari egokitzeko. Hala ere, beharrianak ikasle batetik bestera alda daitezkeen arren eta era berean, guztiengan modu desberdinean agertzen diren arren, Belleverren (2013) aburuz, hamaika premia erakusten dituzte haur hauek eta funtsezkoa da haur bakoitzarenak espezifikoki identifikatzeko gai izatea.

Honen harira, oso garrantzitsua da jakitea haurra garatzen doan heinean, bere beharrianak ere aldatzen doazela. Aldakortasun honetan hurrengo faktoreek eragin dezakete: haurraren garapen momentuak, familiak, testuinguruak... Gainera, premia hauek akademikoak, kognitiboak, emozionalak eta sozialak izan daitezke eta jada esan bezala, haurraren ongizate integrala eta orekatua eskuratzeko, ezinbestekoa da premia guztiei aldi berean modu egokian erantzutea. Halaber, hurrengoak dira sarri agertzen diren beharrianak (Berritzegune, datarik gabe):

- Segurtasuna eskaintzen dion inguru afektibo bat behar dute, hau da, diren bezalakoak izanda onartuak diren inguru bat. Izan ere, dituzten gaitasunak edukita ere, entzuten dituztela eta errespetatuak direla sentitzea behar dute.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

- Ingurukoen laguntza jasoz, beraien burua ezagutzeko premia daukate. Modu honetan, gaitasun handiak izatearen abantailak eta desabantailak ezagutuko dituzte, baita norberaren indarguneak eta ahulgunean zeintzuk diren identifikatuko ere.
- Errespetuan, inklusioan eta ulermenean oinarritzen den giroa behar dute, non onartuak diren eta estimulazioa ahalbidetzen den. Honela, haietako bakoitzaren garapen soziala eta emozionala bultzatuko da beste haur batzuekin batera eta honi esker, talde sozialekin erlazionatzeko ateak irekiko zaizkie. Hartara, ezberdintasunak errespetatzen eta balioesten ikasten da, besteekin enpatia izateko, arau sozialetara moldatzeko, beraiengandik espero dena eta bere jarreraren ondorioak ulertzeko... eta abar.
- Inguru aberasgarria, estimulatzaileria, dinamikoa eta malgua behar dute, non motibazioz jardun dezaketen beraien kezka eta jakin-minak asetuz, gaitasunak garatuz, ikasiz, sentimenduak adieraziz, imajinatuz, sortuz... eta abar.

2.1.5. MITOAK ETA USTEAK

Aceredak (2010) adierazten duen bezala, geroz eta espezializatu gabeko argitalpen gehiago dira (aldizkariak, artikuluak, monografiak...) adimen gaitasun handien inguruan modu okerrean informatzen dutenak. Ondorioz, gaizkiulertuak, nahasteak, mitoak eta uste faltsuak sortzen dira, kasu gehienetan, itxaropen irrealak eta okerreko ideiak sortuz.

Halaber, aniztasunari eman beharreko erantzuna eta era berean, ikasle bakoitzaren ezberdintasunen aurrean erakutsi beharreko errespetua eta hauei eman beharreko babesa, gaur egungo edozein hezkuntza sisteman presente egon beharko litzateke (Tourón, 2016). Nolanahi ere, gaitasun handiko ikasleei dagokienez, behar dena baino gutxiago egin da ikasle hauen hezkuntza premiei erantzuna emateko. Izan ere, ikasle hauek dituzten ezaugarri pertsonalak kontuan hartuz, beraien kabuz behar bezalako garapen pertsonala lortzeko gai direla pentsatzeko joera dago. Mito nagusi honez gain, hurrengoak agertzen dira (Castro, 2008; Aretxaga, 2013; eta Llata, 2015):

- Ikasle hauek ezaugarri homogeenak dituztela uste da eta ez da egia, aniztasun izugarria baitago haien guztien artean.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

- AK (Adimen-Koizientea) altua izateagatik definitzen dira, zehazki 130ren gainetik, talentudun haurrak 125 ingurutik kokatuz, baina AK altu baten lorpena ezin da gaitasun handien determinatzaile bakarra izan.
- Errendimendu akademiko altua erakusten dutenez, erantzun akademiko espezifikorik eta laguntzarik behar ez dutela pentsatzen da.
- Hezkuntzako arlo guztietan trebeak direla sinesten da, akademikoki arlo guztietan arrakasta dutela pentsatuz. Baina uste okerra da, ez dute zertan arlo guztietan nabarmendu behar, orokorrean arlo batean edo batzuetan nabarmentzen baitute. Gainera, porrot akademiko altua dago ikasle hauen artean.
- Eskolako jarduerak egitean oso motibatuta aritzen direla uste da, baina hori soilik haien intereseko gaiekin gertatzen da, bestela aspertu eta deskonektatu egiten dute.
- Orokorrean, gaitasun handiko ikasleago eskolan aspertu egiten dela baieztatzen da eta ez da beti horrela. Gainera, interesetaz aparte, aspergarritasun edo deskonexio hori eskolak haien gaitasunei, beharriaz eta ikaskuntza erritmoari modu egokian ez erantzuteagatik da. Ondorioz, saioak eta edukiak errepikakorrak eta ohikoak bilakatzen dira kolektibo honetako ehuneko handiarentzat.
- Irakasle batzuek ume estimulatuak soilik direla diote, gaitasun handiko haurren existentzia ukatuz.
- Gaitasun handiak dituzten ikasleen irakasleak gaitasun handikoak izan behar direla pentsatzeko joera dago eta ez du zertan; Irakasleek gaiaren inguruko formazioa eta ezagutza izateak izugarri lagun dezake.
- Irakasle batzuen aburuz, arestian aipatutako ezaugarriak erakusten dituen ikasle bat gelan edukitzeak beraien lana errazten du, baita ikasle hauek ikasteko erakusten duten erraztasunaren ondorioz, beraien lana eraginkorragoa izango dela pentsatu ere.
- Ikasle hauek identifikatzea erraza dela uste da, baina ez da horrela, oso zaila baita. Arestian esan bezala, kolektibo anitza eta heterogeneoa da, batzuetan nabarmendu gabe igarotzen dena. Hori dela medio, beharrezkoa da antzemate prozesua

zehatz-mehatz jarraitzea eta modu kolektiboan gauzatzea, hots, familiaren eta komunitate hezigarriaren artean.

- Gaitasun handiko haurrek klaseko kideen ikaskuntza erritmoa kaltetzen dutela uste da eta akats handia da. Izan ere, haien argitasun, azkartasun eta prozedura kognitiboekin gelaren garapena aberastu dezakete.
- Adimen gaitasun handiko ikasleak bere kabuz aurrera egiten duela pentsatzen da, inolako zailtasunik eta oztoporik gabe. Gainera, arrakasta akademikoa inoren laguntzarik gabe eskuratzen dutela uste da eta ez da horrela. Bizkor eta erraz ikasten duten arren, orientazioaren beharra sentitzen dute, baita haien gaitasunak garatzen jarraitzeko estimulazioa ere. Gainera, dituzten beharrezanez ez bazaie egoki erantzuten, litekeena da erreakzio eta jokabide desegokiak agertzea.
- Kolektibo honek estimulaziorik behar ez duela pentsatzen da, baita estimulazioa kaltegarria izan daitekeela ere. Mito huts bat da, estimulazioa funtsezkoa baita giza garapenerako. Denok behar dugu arreta eta estimulazio egokia gaitasunak eta konpetentziak garatu ahal izateko. Bestela, ezinezkoa da barneko potentzialtasuna garatzea eta ondorioz, honi etekina ateratzea.
- Gaitasun handiko ikasleak arraroak direla eta gaitasun sozial urria daukatela pentsatzeko joera dago, hau da, sozialki moldatu gabeak direla esaten da, arazo emozionalak pairatzearekin batera, eta ez da egia. Pertsonak dira, gainontzekoak bezala eta pertsona bakoitza mundu bat da.
- Haien adinekoekin harremantzeko zailtasunak dituztela uste da, baita berdinen artekoekin jolastea ukatzen dutela ere, ez omen dutelako haiek bezain azkar ikasten. Hau pentsatzea akats handia da. Ezin da orokortu, baina egia da nahiago dutela interakzioa eduki dezaketen pertsonekin soilik harremantzea, hots, interes berak dituztenekin eta gehienetan, helduengan aurkitzen dituzte puntu hauek.
- Herrialde garatuetan herrialde ez hain garatuetan baino adimen gaitasun handiko pertsona gehiago dagoela uste da, maila sozioekonomikoa dela medio. Mito hau guztiz okerra da, adimen altua edukitzea genetikoki oinordetzan hartzen baita, baina egia da ahalmen horri etekinik ateratzen ez bazaio, potentzialtasuna garatzeko aukerak murrizten direla eta hemen bai eragiten du testuinguruak. Izan ere, herrialde xume eta

eta behartsu batean jaiotako haur batek ez ditu herrialde garatu eta aberats bateko haur batek jaso ditzakeen estimuluak jasoko.

- Haur hauek arreta zehatza eta terapeutikoaren beharra dutela esaten da, baina ez da egia. Izan ere, premia bereziak behar dituzten haurrak diren arren, azpimarragarria da gaitasun handiko haur guztiek ez dutela laguntza berezirik behar, hauetako asko oreka integralean (ongizate fisikoan, sozialean, emozionalean eta kognitiboan) baitaude.

2.2. ENPATIA

Enpatia gaitasun sozialetako bat da, adimen gaitasun handiko haurrek oso garatua dutena eta pertsona guztiek eduki beharreko funtsezko baloretzat hartzen dena (Montaner, 2017). Izan ere, enpatia gaitasun handiko haurren sentsibilitate altuari estuki lotuta dago (Menéndez, 2021) eta honetan irakaslearen irudi enpatikoak funtsezko garrantzia dauka, ikasleen motibazioan, estimulazioan eta garapen akademikoan modu baikorrean eragiten baitu (Lehen Urratsak, 2018). Beraz, atal honetan enpatiaren oinarri teorikoak aztertzeaz gain, fokoa irakasleengan jarriko da, pertsonekin -kasu honetan ikasleekin- lan egiten den heinean, oso garrantzitsua baita enpatia gaitasuna garatuta edukitzea, bereziki premia bereziak dituztenekin (Berritzegunea, datarik gabe). Modu honetan, irakaslea ikaslea ulertzeko gai izango da, honen beharrezanez erantzun egokia emateko beharra sentituz eta honela, ikaslea aintzat hartua eta zaindua sentituko da, honek guztiak bere autoestimuan, autokontzeptuan, motibazioan eta garapen integralean eragin positiboa izanik (Lehen Urratsak, 2018).

Berritzegune Nagusiari dagokionez, Adimen Gaitasun Handiko ikasleak behar bereziak dituzten ikasleak dira. Hori dela medio, irakasleen zeregina beharrezan horiek asetzeko da eta lan horretan berebiziko garrantzia du enpatia. Irakasleak ikaslearen egoera, sentimenduak, jokabideak... ulertzeko eta bere sentitzeko abilezia erakutsi behar du. Honela, ikasleari laguntzeko premia sentitu eta beharrezan horiek asetzeko gero, eragin baikorra izango luke ikaslearengan (Lehen Urratsak, 2018). Baina irakasleak enpatiarik erakusten ez badu, nola izango da honi laguntza eskaintzeko gai? Nola ulertuko du ikaslea? Nola jarriko da ikaslearen lekuan? Eta ikasleak nola garatuko du bere potentzialtasuna?

Horri guztiari erantzun egoki bat emateko, ezinbestekoa da irakasleak jakitea ikasle hauek premia bereziak dituztela eta ondorioz, beharrezan horiek asetzeko hezkuntza-erantzun egoki bat emateko prest egon behar dela (Berritzegunea, datarik gabe).

Laguntza hori eman ahal izateko, oinarrizkoa da irakaslegoa Adimen Gaitasun Handien inguruan formatuta egotea. Modu honetan, irakaslea gaitasun handiko ikaslea identifikatzeko gai izango da, hau izanik esku-hartzearen lehendabiziko urratsa (Eusko Jaurlaritz, 1995). Aipatutako formazioa emateko, funtsezkoa da irakaslea enpatikoa izatea, honela ikaslearen lekuan jarri eta bere beharrianak identifikatzeko gai izango baita. Hartara, premia horiei erantzun egokia emateko ezagutza falta somatu eta gaitasun handien inguruan formatzeko beharra ikusiko du. Aitzitik, arestian aipatu bezala, ikasle hauek errendimendu akademiko altua erakusten dutenez, erantzun akademiko espezifikorik eta laguntzarik behar ez dutela pentsatzen da, hots, inoren laguntzarik gabe aurrera irteteko gai direla (Castro, 2008; Aretxaga, 2013; eta Llata, 2015). Mito eta uste honen eraginez, irakasleak ikasle hauek premia berezirik ez dutela pentsatzearekin batera, ez du laguntza eskaintzeko beharrik ikusiko eta ondorioz, ez da gaiaren inguruan formatuko. Irakasleak ez badu gaitasun handien inguruko ezagutzarik, mugatuta sentituko da, nola lagundu jakin gabe eta, beraz, ikaslearen premiek ez dute erantzun egoki bat jasoko. Honelako aurreiritzi eta jarreraren eraginez, kolektibo honetako ikasle askok (%70 inguruk) ez dute etekin nahikorik ateratzen eskolan eta ondorioz, porrot eskolarrean erortzen dira, ia erdia unibertsitatera iritsi gabe geldituz (Hernandez, 2017).

2.2.1. ENPATIAREN DEFINIZIOA

Enpatiaren kontzeptuak etengabe garatzen jarraitzen du psikoterapian (Rogers, 1957, 1975) eta eztabaida ugari izan ditu alor akademikoan, ikertzailean, literarioan, filosofikoan, pedagogikoan, klinikoan, sozialetan, politikoan... eta abar (Fernández-Pinto, López-Pérez eta Márquez, 2008).

Balarten esanetan (2013), “enpatia gainontzekoen lekuan jarriz, besteek dituzten sentimenduak eta arazoak ulertzeko gaitasuna da, erreakzio emozionalei modu egokian erantzuteko. Beraz, enpatia pertsonekin konektatzeko tresna dela esan daiteke”. Poujolek (2005) pertsona batek beste batekin edo batzuekin modu afektibo eta emozionalean identifikatzeko gaitasuna bezala deskribatzen du enpatia. “Benetako enpatia norbera besteen azalean jartzeko ahalmena da, baita egoera horietan nola sentitzen diren pentsatu eta haienganako ardura sentitzeko gaitasuna ere”.

Enpatia pertsona bezala pentsatzeko eta sentitzeko kompetentzia da, orokorrean osagarri kognitiboak eta afektiboak inplikatzeko dituenak. Enpatia adimen emozionalari lotuta

dago eta gaitasun sozial bat denez, gainontzeko pertsonekin modu osasuntsu eta positiboan harremantzeko ahalmena eskaintzen digu (Riquelme, Munita, Jara eta Montero, 2013).

Gaur egun konpetentzia hau oso urria da, gizarte indibidualizatu batean bizi garelako. Hori dela medio, ezinbestekoa da haurrak txikitatik enpatian heztea, bestelako baloreekin batera: inklusioan, errespetuan, lankidetzan, autonomian, bizikidetzan, hezkidetzan... eta abar. Modu honetan, txikitatik enpatia lantzeak norberaren alderdi emozionala garatzen lagunduko du, autoestimua eta autokontzeptua indartuz erabateko ongizate integral baten bila. Hartara, norberaren emozioak ezagutu, ulertu eta identifikatzen ikastearekin batera, gainontzekoenak ikasten dira eta honi esker, besteekiko interakzioak sustatuko dira, harreman sozialak modu positiboan areagotuz (Rodríguez, 2015). Gaitasun handiko haurrak oso sentiberak direnez, hezkuntza eta ongizate integral honetan berebiziko garrantzia du irakaslearen ereduak, bereziki honen gaitasun enpatikoak (Lehen Urratsak, 2018). Hori dela medio, ezinbestekoa da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana egokia izatea, honek eragina baitu ikasleen ikaskuntza prozesuan (akademikoan eta pertsonalean). Izan ere, irakaslearen izaerak ikaslearen garapen prozesua baldintzatu dezake, hauxe arrakasta edo porrot akademikoan bilakatuz (Mújica, 2015). Funtsean, irakasle-ikasleen arteko harremana osasuntsua eta orekatua izan behar da, irakaslearen figura eredugarria izanik. Ikasleek ordu asko igarotzen dituzte eskolan eta irakaslearengandik ikusten dutena barneratzen dutenez, ezin da ahaztu irakasle askok bizitza osorako aztarnak (onak eta ez hain onak) uzten dituztela ikasleengan (Moreno, 2019).

Espainiako Errege Akademiak (2020) edo gazteleraz La Real Academia Española (RAE), enpatia honela definitzen du:

1. Zerbaitekin edo norbaitekin identifikatze sentimendua.
2. Norbaitekin identifikatzeko eta haren sentimenduak partekatze gaitasuna.

2.2.2. PREBALENTZIA

Adimen gaitasun handiko pertsonak ahalmen edo erraztasun gehiago dute gainontzekoen lekuan jartzeko. Izan ere, ezaugarri kognitibo-intelektualen azpiatalean aipatu bezala, aldagai gehiago erabiltzen dituzte pentsatzerako garaian eta ondorioz, oso sentiberak dira. Honen harira, biztanleriaren %15-20 bitartekoa da sentsibilitate altuaren prebalentzia eta ezaugarri hau lau faktoretan sailkatzen da (Menéndez, 2021):

- Prozesatzeko sakontasuna.
- Erreaktibotasun emozionala eta enpatia.
- Gainestimulazioa.
- Zorroztasunekiko sentsibilitatea.

Silvermanen (1993) arabera, sentsibilitateak eta enpatiak zerikusia daukate, baina ez dute zertan biek aldi berean eman behar. Izan ere, gaitasun handiko haur batzuk oso sentiberak dira (norberarekiko sentimenduez hitz egitean) eta agian, ez oso enpatikoak (besteekiko sentimenduez hitz egitean). Baina orokorrean, enpatia maila handia izaten dute eta ondorioz, norberaren akatsekiko frustazioaz gain, besteen akatsekiko frustrazio handia erakusten dute.

Arthur Aron eta Elaine Aron (1997) psikologoek "Sentikortasun Handiko Pertsonaren Eskala" testaren emaitzei dagokienez, estadistiketan neskatilen puntuazioa mutikoena baino askoz altuagoa da. Baina erne, honek ez du esan nahi neskak sentiberagoak direnik. Sentimendu adierazpena ez da biologikoki datorkigun zer bait, kulturalki eraikitako jokaera estereotipatu bat baizik. Neskatilen sozializazioan neskek hobeto ikasten dute emozioak onartzen eta plazaratzen, bai beste emakume batzuk behatuz, bai gizartean "ongi" ikusia egoteagatik. Baina zergatik ez da gauza bera gertatzen mutikoen sozializazioan? Gizarteak mutikoei sentimenduak eta emozioak gordetzera bultzatzen dituelako, zapalduak eta gaizki ikusiak daudela sinistaraziz. Hori dela medio, adimen emozional altuagoa ikusten da emakumeetan.

Dena den, argi eduki behar da gaitasun handiak eta sentsibilitate altuak ez direla sinonimoak. Izan ere, lehenengoaren prebalentzia %2-3 ingurukoa da eta bigarrenarena, ordea, %15-20koa. Beraz, sentsibilitate altuko pertsona guztiak ez dira gaitasun handikoak, ezta alderantziz ere (Menéndez, 2021).

2.2.3. ENPATIA MOTAK ETA EZAUGARRIAK

Enpatia hain ikuspuntu ezberdinetatik maneiaturia izan denez, batzuetan kontraesanak sortu eta hurrengo sailkapena ezagutzen da:

Enpatia kognitiboa: Adimenaren Teoriarekin lotzen da. Pertsonaren gaitasun edo joeretatik abiatuz (Davis, 1980 eta 1983), beste pertsonen egoera nolakoa den aztertzean eta ulertzean oinarritzen da, non bestearen ikuspuntuan kokatzen den (Fariña, 2015).

Enpatia afektibo-emozionala: banakako errektibotasun emozionaletik abiatuz (Davis, 1980 eta 1983), elkar-ulertzearen eta kimikaren oinarria da, non beste pertsonaren emozioak sentitzen diren eta norbera bestearen egoeraren jabe egiten den (Fariña, 2015).

Ardura enpatikoa: beste pertsona batekiko buruhaustea sentitzeko gai izatea eta ezer trukean espero gabe laguntzeko prest eskaintzea da (Fariña, 2015).

Xedapenezko enpatia: barne atribuzioan oinarritzen da, non norberak kontrola duen eta ondorioz, era batera edo bestera jokatzeko erabakia norberaren esku gelditzen da. Hala, jokabidea ez du ezerk eta inork eragiten. Era honetan, norbera sentitzen da arduraduna (Gómez, 2021).

Egoerazko enpatia: kanpo atribuzioan oinarritzen da, non kontrola ez dagoen norberaren esku eta ondorioz, ez dago jokabidea erabakitze aukerarik, hau kanpoko indarrek eragiten baitute. Beraz, ardura ez da norberarena (Gómez, 2021).

2.2.4. DAVIS-EN EREDU INTEGRALA

1996. urtean Davisek enpatia horrela definitu zuen: "beste baten azalean jartzeko prozesua eta erantzun afektiboak eta ez afektiboak barnebiltzen dituen bilduma eraikitzailea. Autore honek enpatia ebaluatzeko tresna bat sortu zuen, **Interpersonal Reactivity Index** (IRI) deiturikoa eta honako hauek dira enpatiaren osagarritzat bereizten dituenak: ardura enpatikoa, ezinegon pertsonala, perspektiba-hartzea, osagarri kognitiboak, emoziozkoak eta fantasiakoak (M. H, 1980). Dena den, jarraian testa osatzen duten lau azpieskalak azaldu arren, eredu honen alderdi praktikoa metodologian sakonduko da, zehazki erabilitako tresnen azpiatalean.

Perspektiba-hartzearen eskala: beste pertsonen ikuspuntuak ulertzeko eta hartzeko bat-bateko saiakerak balioztatzen dira.

Fantasiaren eskala: pelikuletako, eleberrietako, antzerkigintzako eta bestelako fikziozko egoeretako pertsonaiekin identifikatzeko joera neurtzen da.

Ardura enpatikoaren eskala: gainontzekoen begikotasunaren, gupidaren eta arduraren sentimenduei buruz galdetzen da.

Ezinegon pertsonalaren eskala: gainontzekoen bizipen negatiboak behatzearen eraginez sortzen diren antsietate eta ezinegon pertsonalaren sentimenduak neurtzen dira.

2.3. HEZKUNTZAREN GARRANTZIA

Lanean zehar orain arte ikusi den bezala, hezkuntzak berebiziko garrantzia dauka adimen gaitasun handiko ikasleengan. Ikasleek ordu eta urte asko igarotzen dituzte ikastetxean sartuta, haien bizitzako lehenengo etapa den horretan eta haiek zein gizartea ohartzen ez den arren, bizi osorako oroimenean gordeta geldituko zaizkien bizipenak, harremanak, ikaskuntzak... eramango dituzte haiekin. Prozesu luze honetan zehar, non une oro ikaslearen garapen integrala bilatzen den (ongizate fisikoa, soziala, emozionala eta kognitiboa), berebiziko garrantzia eta eragina duten bi pilare bereizten dira jarraian: irakaslegoa eta eskola (Lehen Urratsak, 2018).

2.3.1. IRAKASLEA ETA FORMAKUNTZA

Azpiatal honetan enpatiak hezkuntzan duen garrantziaz hitz egingo da, non fokoa hezkuntza-sistemako protagonistetako bi izango diren, hain zuzen ere ikaslea eta irakaslea. Irakaslegoaren enpatiarri dagokionez, Vaelloren (2011) "Cómo dar clase a los que no quieren" liburuak adierazten duen bezala, enpatia da botere iturri eraginkorrenetakoa. Irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanean garrantzia handia dauka enpatiak eta konfidantzan, errespetuan, hurbiltasunean eta elkarrenganako estimuan oinarritzen da. Autore honen aburuz, hau honako gaitasun osagarriekin eskuratzen da:

- **Harmonia emozionala:** ezer esan gabe beste pertsonak sentitzen edo pentsatzen duena sentitzeko gaitasuna da. Puntu honetara iristeko ezinbestekoa da ikasleak ezagutzea eta ulertzea. Horretarako, ikasleen interesak eta potentzialtasunak aztertu behar dira. Irakasle bezala, garrantzitsua da nola ikusten zaituzten jakitea, baita irakaslearen ikuspuntua ulertzen saia daitezen lortzea ere. Honela, irakaslearen betebeharrak eta erabakien arrazoiak ulertuko dituzte.
- **Irradiazio emozionala:** norberaren egoera emozionalak beste pertsona bati helarazteko gaitasuna da. Honek irakasleak ikasleenganako duen eragina areagotzen du, baita elkarren arteko tentsio uneak gutxitu ere. Izan ere, ikasle gatazkatsuek jarrera txarrak baretzeko joera dute irakasle enpatikoekin. Honek guztiak ikasgelako giroa hobetzen du, kalitatezko irakas-ikaskuntzarekin batera.

Ikasle guztiekiko bezala, oso garrantzitsua da irakasleen enpatia Adimen Gaitasun Handiko ikasleekiko. Irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanean funtsezkoa den enpatia hau konfiantzan, errespetuan, hurbiltasunean eta elkarrenganako estimuan oinarritzen da (Vaello, 2011). Izan ere, irakasleak ikasleenganako erakusten duen gaitasun enpatikoak eragina dauka ikasle bakoitzaren garapen integralean, ez soilik akademikoan (Mújica, 2015). Enpatiak berebiziko indarra du ikasleengan, hauen beharrianak, interesak, sentimenduak... aintzat hartuz gero, baloratuak sentituko baitira eta honek haien autoestimuan, autokontzeptuan, motibazioan... modu baikorrean eragingo du haietako bakoitzaren potentzialtasunari etekina ateraz (Lehen Urratsak, 2018). Aitzitik, irakaslearen aldetik enpatiarik ez badago, tratu txar emozionala egon daiteke eta honek hamaika somatizazio ekar diezazkioke ikasleari: eskolara joan nahi ez izatea, askotariko minak edota sukarra eragitea... bullyingarekin gertatzen den bezala. Gainera, enpatia falta horrek eragindako tratu arrotz eta hotzak ikasleak arloa begitan hartzea eragin dezake eta ondorioz, ikasteari uzteko, alferragoa bilakatzeko edota inolako ahaleginik ez egiteko aukerak areagotzen ditu, honek guztiak porrot akademikoa ekarriz, ez baita ikaslearen potentzialtasunaren etekinik ateratzen (Alcagi, 2021).

Honen harira, kolektibo honetako ikasleek haien eskubideak dituzte gainontzeko ikasle guztiek bezala, baina badago lege bat hori defenditzen duena. Abenduaren 9ko, hezkuntza arloko, 8/2013 Lege Organikoak adimen-gaitasun handiko ikasle guztiek beren gaitasunetara egokituta dagoen hezkuntza espezifikoko bat jasotzeko duten eskubidea aitortzen du. Adimen-gaitasun handiko ikasleak talde espezifikotzat jotzen ditu lege honek, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen artean sartuz. Legeak oinarritzko bi ideia garatzen ditu:

- Gaitasun handiak alderdi kognitibo hutsetatik haratago doaz, prozesu kognitibo eta emozionalen arteko elkarrekintzatik sortutako fenomeno bat izanik.
- Prozesu luzea, hauskorra eta konplexua da. Hazkunde-prozesu horretan partaide diren eragile nagusiak gurasoak eta irakasleak dira, hauen zeregina prozesu horrek hurrei ahalik eta mesederik handiena egitea ziurtatzea delarik.

John F. Feldhusen (1985) esanetan, gaitasun handietarako irakasle batek kolektibo horren ezaugarri eta gaitasunen bat eduki beharko luke. Irakasle hauen rola ohikotasunetik haratago doaz: ikasleei ezarritako estandarrekin apurtzen dute, ikasleen bikaintasuna

bilatzeko motibazio ezberdinak bilatzen dituzte, irakas-ikaskuntza prozesurako hurbiltasun berriak bilatzen dituzte, sormena sustatzen dute... (Croft, 2003).

Hori horrela, irakasleak argi eta garbi eduki behar du ikasle bakoitza mundu bat dela, baita beti ikasle bakoitzaren egoerara egokitu behar dela ere, hots, ezaugarrietara, gaitasunetara, zailtasunetara, interesetara... ikasle bakoitzari erantzun hezigarri egokia emateko gai izanik. Kirsi Tirriren (2008) aburuz, irakasle on batek kolektibo honentzat hezitzaile on bat izateko potentzialtasun altua dauka, goi-mailako gaitasunen aurrean beti jarrera baikorra erakusteko gai izanik. Halaber, gaitasun handiko ikasleekin lan egiten duen irakasle orok izan behar du konpromezua ikasle horien potentzialtasunari etekin handiena ateratzeko (Parker, 1996)

Nolanahi ere, irakaslearen eta ikasleen arteko harremanak berebiziko garrantzia dauka ikasleen ikaskuntza prozesuan, bai arlo akademikoan zein pertsonalean. Izan ere, irakaslearen arrakasta edo porrot akademikoa irakaslearen izaera eta ikasleenganako erakusten duen harremanaren arabekoak dira. Orokorrean, ikasleek interes gehiago daukate arlo batean irakasle jator eta goxo batekin topo egiten dutenean, baita edukiak barneratzeko modu errazago batean irakasten dietenean ere (Mújica, 2015).

Irakasleak pertsona garrantzitsuak dira ikasleen bizitzan, asko arrastoa uzteko gai direlarik. Oraindik amaitzear dagoen Finlandiako Turku hiriko Unibertsitatean eta Jyväskylä Unibertsitatean burututako “Lehen Urratsak” ikerketak dio (2018) enpatiarene balioak berebiziko indarra daukala ikasleengan, hauen motibazioa, estimulazioa eta garapen akademikoan modu baikorrean eragiten baitu.

Halaber, enpatiarik gabeko irakasle batek edo bere haurtzaroa oroitzen ez duen irakasle batek zailtasunak izango ditu bere ikasleen lekuan jartzeko eta ondorioz, ez da gai izango ikasgelan orekazko zein harmoniazko giro bat sortzeko. Enpatiarako gaitasunik ez duen irakasle bat ez da gai izango bere ikasleen arteko liskarrak eta gatazkak modu eraginkorrean konpontzeko, gehienetan ez baitu ikasleen jokabidea ulertuko (Mújica, 2015). Hori dela medio, irakasle bakoitzak adimen emozionalaren lanketa egin beharko luke, baita entzumen aktiboa praktian jarri ere. Irakasle bezala funtsezkoa da ikasleak entzutea eta haien iritziak zein interesak errespetatzea. Gainera, Renzullik EIBZko liburutegian argitaratutako elkarrizketa (2014) batean esan bezala: “Irakaslearen rola umeei informazio hutsa emateaz harago doa. Adibidez, irakasleak istorio bat erdizka utzi behar du eta umeei galdetu zer uste duten pasatuko dela, istorioarentzako amaiera bat asma dezaten eskatuz.

Esaterako, ikasle bati amaiera zoriotsua idazteko eskatu ahal zaio, eta tristea beste bati; eta gero, alderantzizkoa egin. Zure adimenak informazioa batu eta pilatu baino gehiago egin ahal izatea eragiten dute horrelako esperientziek”.

Azken batean, irakaslearen figura eredugarria da ikasleentzat. Ikasleek irakaslearengandik ikusten dutena barneratzen dute, bera baita ordu askoz aurrean daukaten heldua. Hala ere, irakasleak enpatia izateaz gain, pazientzia edukitzen jakin behar du, baita bere lanarekiko ilusioa mantendu ere. Irakaslea erreta badago, bere lanean deseroso, beti haserre eta bere ikasleei gertatzen zaienaz arduratzen ez bada, zer pentsatuko dute ikasleek? Funtsean, bere lana eta bizitza maite duen irakasleak, jarrera baikorra duenak eta bere emozioen jabe denak, ikasleari sentimendu berberak helaraziko dizkio, bere egotearekin jada hezten baitu (Mújica, 2015).

Irakaslearen formakuntzari dagokionez, asko ez dira gai gaitasun handiko ikasle bat identifikatzeko eta hor dago lehenengo akatsa, identifikazioa baita esku-hartzearen lehenengo urratsa (Eusko Jaurlaritza, 2013). Honek identifikazioa atzeratzea edo oztopatzea suposatzen du, arrazoiak formazio falta izanik. Beraz, gaitasun handien inguruko ezagutza mailak eragina du edozein egoeraren aurrean: identifikazioan, esku-hartzean, erantzun hezigarrian, eskaini beharreko laguntzan, asetu beharreko beharrezanetan... Baina irakasleak gaitasun handien inguruko ezagutzak baditu edota formakuntzaren bat jaso badu, kolektibo honetako ikasle bat garaiz identifikatzeko aukerak areagotuko liriateke. Hartara, ikasle horren premiak garai egokian asetuko eta landuko liriateke, baita gaitasun eta potentzialtasunei etekin aproposa ematen lagundu ere, erantzun hezigarri egokiak emanez, alegia. Egoera alderantzizkoa izanik, ondorio latzak ekar ditzake ikasle horrengan, hala nola, autoestimua arazoak, desmotivazioa, zailtasun sozialak, arreta falta, jokabide desegokiak, arazo emozionalak, porrot akademikoa... eta abar. Ahaztu gabe honek guztiak ikasleari aztarna gogorrak utz diezazkiokeela bizitza osorako, litekeena helduaroan okerrera joatea izanik (Moreno, 2019).

Irakaslearen formakuntza eta enpatiaren arteko erlazioari dagokionez, uler daiteke irakasle enpatiko bat ikaslearen lekuan jarri eta bizitzen ari den egoeraz jabetuko litzatekeela, baita ikaslea ulertu eta honi laguntzeko premia sentitu ere. Hartara, irakasleak gaiaren inguruan ezagutzarik ez izatekotan, jakin-mina piztu eta informatzeko beharra sentituko luke. Aitzitik, irakaslea ez bada ikaslearen azalean jartzeko gai, ez du honi laguntzeko beharrik sentituko eta ondorioz, ezingo dio ikasleari erantzun hezigarri egoki bat

eman, identifikatzeko gai ez delako batik bat. Eta finean, identifikazioa da esku-hartzearen lehenengo urratsa (Eusko Jaurlaritza, 2013).

Horrez gain, irakaslearen eta familiaren arteko harremana ezinbestekoa da ikaslearen ikaskuntza prozesuan zehar. Elkarlanean aritu behar dira, etengabeko komunikazioan, biak beti haurrari laguntzeko prest daudela adieraziz. Era berean, ikaslearen autonomia eta lankidetzaren sustatu beharko da elkarren artean, baita eskolan eta etxean aspertu ez dadin erronka suposatzen duten jarduerak gehigarriak eskaini ere, bere mailatik zertxobait haratago daudenak. Honela, ikaslea estimulatuko dute, baita motibazioa indartu ere (Hezkuntza Premiak, datarik gabe).

Laburbilduz, jarrera enpatikoa edukitzeak eragina dauka ikaslearen erantzunean eta emaitzetan, eta gaitasun handiko ikasleengan are gehiago. Kolektibo hau oso sentibera da eta irakaslea haien azalean jartzeko gai bada, errazagoa identifikatuko ditu ikaslearen beharrianak, baita hauek asetu ere. Honela, ikaslea entzuna, ulertua eta errespetatua sentituko da, berarengan motibazioa sustatzearekin batera. Hartara, ikaslea bere potentzialtasunari etekina ateratzeko gai izango da, porrot akademikoa ekiditeko aukerak areagotzen direlarik (Lehen Urratsak, 2018).

2.3.2. ESKOLAREN PAPERA

Gaitasun handiko ikasle baten beharrianak ezin dira erantzunik jaso gabe gelditu eta honetan, irakasleak bezala, berebiziko garrantzia dauka eskolak. Beste autore batzuekin batera, Adamek (2013) eskola tartekari sozial egokitzat jotzen du, bereziki oinarrizko gaitasun sozialak lantzeko eta horrela, gizarte demokratiko aktiboa zein arduratsua eratzeko.

Gaitasun handiko ikasle hauek premia bereziak dituztenez, aberaste kurrikularra behar dute eta eskola prest egon behar da honi guztiari erantzun egoki bat emateko. Horretarako, ikastetxeak baliabide egokiak eta gaian adituak diren irakasleak eduki behar ditu kolektibo honetako ikasleak identifikatzeko eta dituzten beharrianak asetzeko. Izan ere, irakasle askok uste dute gaitasun handiko haurrak emaitza paregabeak ateratzen dituztenak direla, alde batera utziz bestelako arrazoiengatik errendimendu baxukoak ere badaudela (eMS, 2021).

Hori dela medio, irakasle baten lehendabiziko ardura ikasle hauek identifikatzeko gai izatea da, ondoren, identifikazio prozesu ofiziala abian jarri ahal izateko. Puntu honetara iristeko, irakaslegoa formatuta egon behar da eta eskolak nolabaiteko ardura du formazio horretan. Hau da, funtsezkoa da eskolan formakuntza saioak antolatzea, baita ezinezkoa bada, gutxienez irakasleei honelako formakuntzen berri ematea ere (eMS, 2021).

Eusko Jaurlaritzak (1995) dio oinarrizkoa dela ikasleen hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuan familia eta ikastetxea elkarrekintzan aritzea, biak baitira eskola-elkartearen osagai. Beraz, gaitasun handiko ikasleen arloan eta, oro har, ikasle guztien kasuan, familiak, eskolak eta komunitateak dute ikasleari orientabide eta hezkuntza egokia eskaintzeko erantzukizuna.

Gaitasun handiko ikasleek izan ohi dituzten beharrizanak aintzat izanik, programa eta metodo bereziak landu behar dira eskolan, baina inola ere ez ezin dira ikasle horiek berriazko ikastetxeetan eskolatu. Era berean, gurasoen zeregina da euren seme-alabak osotasunean ezagutzea (izaera, interesak, gaitasunak, zailtasunak...), baita ikastetxeak seme-alabaren beharrizanei eskaini diezaiekeena jakitea ere. Azken batean, hezkuntzak ikasleari aukera egokiak eskaini behar dizkio, horien bidez bere indarguneak eta ahuleziak ahal den neurrian gara ditzan, beti inklusioaren ikuspegitik behar dituen laguntzak eta motibazioak eskura izanik (Eusko Jaurlaritza, 1995).

Ikastetxearen plangintzari dagokionez, hezkuntza-premia bereziak dituzten gainontzeko ikasleen kasuan bezala, egoera bakoitzari eman beharreko erantzuna ikastetxeak aniztasuna bideratzeko izan beharreko Hezkuntza-proiektuaren eta Curriculum-proiektuaren aurrikuspen orokorretan bildu beharko da, beti abiapuntua ongi definitutako curriculum bat izango baita, irakaskuntza integratzaile eta muinbakarra aintzat hartuz. Modu berean, ezinbestekoa da ikastetxean adimen gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana edukitzea, baita hezkuntza orientabideak eta bestelako programak zein planak ere (Eusko Jaurlaritza, 1995).

Oro har, ezinbestekoa da eskola-erakundeak bere ikasle guztiekiko erantzukizuna adieraztea. Eskolak ikasgelan eta ikastetxean bertan giro egokia sorrarazi behar du, ikasleen berriazko potentzialtasunaren garapen integrala ahalbidetuko duen giroa eta, halaber, baita bilakaera harmonikoa errazten duena ere, bereziki sor daitezkeen gatazka pertsonalak, jokabide gaitzesgarriak edo errendimendu txikiak sustatzea saihestuz (Sánchez, 2019-2020).

Eusko Jaurlaritzaren (1995) aburuz, ikastetxearen jarrerak honakoak izan behar dira:

- Gaitasun handiko ikasleak ez dira oztopotzat joko, aberasteko aukeratzat baizik.
- Aniztasunaren alderdi hau ulertzea, baloratzea, onartzea eta errespetatzea.
- Ikaslearen beharrianak errespetatzea eta hauei erantzun egoki bat ematea.
- Identifikaziorako eta ondorengo jardueretarako ikasleak beharko dituen laguntzak, orientabideak eta parte-hartzeak eskatzea eta eskaintzea.
- Autonomia eta lankidetzaren bermatzea berriazko planak edo programak landuz.
- Curriculumean malgutasuna edukitzea eta behar diren egokitzapenak diseinatu ondoren, hauek praktikan jartzea.
- Ikaslearen familiarekin harremana mantentzea.

Nolanahi ere, zentroa hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei hurrengo baliabideak eskaintzeko prest egon behar da (IES Julio Caro Baroja BHI, datarik gabe):

- Orientabide departamenduan kokatzen diren baliabide pertsonal adituak: orientatzailea, pedagogoa, logopeda, keinuen hizkuntzako irakaslea, hezkuntza laguntzailea, pt-a, fisioterapeuta, psikologoa... eta abar.
- Hezkuntza arreta (gela arrunta edo gela egonkorra). Lehenengoan laguntza edo indartzearen bitartez egiten da, curriculumak egokitu ala ez. Bigarrean, ordea, gela berezietan premiei aurre egiteko egokituak programazioen bitartez burutzen da.
- Ez ohiko baliabide materialak.

Funtsean, ehuneko handi batean eskolaren eta irakaslearen esku dago ikaslearen etapa akademikoa esperientzia baikorra, aberatsa eta esaguratsua izatea. Hala ez bada, ondorio latzak ekar diezazkioke haurrari epe labur edota luzean, eta ez soilik porrot akademikoa (Hernandez, 2017).

3. MARKO PRAKTIKOA

Atal honetan Gradu Amaierako Lana bere osotasunean burutzeko erabilitako metodologian sakontzen da. Bertan helburu orokorrak eta espezifikoak planteatzeaz gain, hauek eskuratzeko jarraitutako urratsak azaltzen dira: partehartzaileak, erabilitako tresnak eta ikerketaren diseinua zein prozedura.

Halaber, atal praktikoa honen ostean ikerketan lortutako emaitzak plazaratzearekin batera, horien inguruan ateratako ondorioak eta prozesu guztian zehar (hasieratik amaierara bitartean) izandako eztabaidak argitzen dira, baita gatazkak eta irtenbideak ere.

3.1. HELBURUAK

3.1.1. HELBURU OROKORRA

Irakasleak Adimen Gaitasun Handiko ikasleei erantzun egoki bat emateko gai ote diren aztertzea.

3.1.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Irakaslegoaren formakuntza eta ezagutza maila Adimen Gaitasun Handien inguruan zenbaterainokoa den ikertzea.
- Irakaslegoaren enpatia maila zenbatekoa den aztertzea.
- Irakasleen enpatiak gaitasun handien inguruan formatzeko eta ezagutzak barneratzeko premian eta nahian eragina duen ondorioztatzea.

HELBURU OROKORRA	HELBURU ESPEZIFIKOAK	HIPOTESIAK
Irakasleak Adimen Gaitasun Handiko ikasleei erantzun egoki bat emateko gai ote diren aztertzea.	Irakaslegoaren formakuntza eta ezagutza maila Adimen Gaitasun Handien inguruan zenbaterainokoa den ikertzea.	Irakaslegoak formazio eta ezagutza falta erakutsiko du.
	Irakaslegoaren enpatia maila zenbatekoa den aztertzea.	Irakaslegoak enpatia maila nahiko altua izango du.
	Irakasleen enpatiak gaitasun handien inguruan formatzeko eta ezagutzak barneratzeko premian eta nahian eragina duen ondorioztatzea.	Irakasleen enpatiak gaitasun handien inguruan formatzeko eta ezagutzak barneratzeko nahian erabateko eragina duela ikusiko da.

1. Taula: Ikerketaren helburuak eta hauetako bakoitzaren hipotesiak.

3.2. PARTEHARTZAILEAK

Ikerketa honetan parte hartu duen kolektiboa Lehen Hezkuntzako irakakaslegoa izan da, zehazki 52 irakasle.

Partaide hauen generoari dagokionez, emakumezkoak %28,8 dira, gizonezkoak %69,2 eta %2 zehaztu gabea, azken honek bi galdetegiak betetzean nahiago izan duelako generorik ez esan.

Adin tartean oinarrituz, 20-69 urte bitarteko irakasleek parte hartu dute ikerketa honetan, non generoari lotuta honako sailkapena egin daitekeen:

20-29 urte bitartean: bederatzi emakume, bost gizon eta zehaztu gabeko bat daude.

30-39 urte bitartean: hiru emakume eta zazpi gizon daude.

40-49 urte bitartean: bederatzi emakume eta bi gizon daude.

50-59 urte bitartean: hamairu emakume eta gizon bat daude.

60-69 urte bitartean: bi emakume daude.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Horrez gain, irakasle hauek lanean diharduten hezkuntza zentroak EAEn kokatzen dira, non irakasleen %80,8ak zentro publikoan lan egiten duen eta %19,2ak kontzertatuan.

Halaber, irakasleen maila akademikoari dagokionez, %50ak gradua eskuratu du, %19,2ak lizentziatura, %13,5ak diplomatura, %11,5ak masterra, %3,8ak graduondoa eta %1,9ak doktoretza.

Oro har, irakasleek lanbidean daramatzaten urte kopuruari erreparatuz, hurrengo sailkapena egin daiteke:


0-9 urte bitartean: irakasleen %48,1.

10-19 urte bitartean: irakasleen %9,6.


20-29 urte bitartean: irakasleen %21,2.

30-39 urte bitartean: irakasleen %21,2.

Emandako datu hauek guztiak hurrengo sektore-diagrametan ikus daitezke:




1. Grafikoa: Irakasleen sailkapena generoaren arabera (ehunekotan).




2. Grafikoa: Irakasleen sailkapena adin tartearen arabera (ehunekoatan).


Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea



3. Grafikoa: Irakasleen sailkapena hezkuntza zentroaren arabera (ehunekotan).



4. Grafikoa: Irakasleen sailkapena maila akademikoaren arabera (ehunekotan).



5. Grafikoa: Irakasleen sailkapena hezkuntzan lanean daramatzaten urte kopuruaren arabera (ehunekotan).

3.3. ERABILITAKO TRESNAK

Ikerketa aurrera eraman ahal izateko erabilitako tresnak hurrengo biak izan dira: Ad-HOC galdetegi eta balidatutako galdetegi (EII). Galdetegi hauek anonimoak dira partaideen intimitatea errespetatzeko.

3.3.1. GALDETEGI KUALITATIBOA

Galdetegi kualitatiboa den hori, Ad-HOC bidez egina da eta hamabost galdera laburrez (soziodemografikoak eta irekiak) osatua dago.

3.3.2. GALDETEGI KUANTITATIBOA

Erreaktibotasun Interpertsonalaren Indizeak (Davis, 1980) enpatiaren neurri dimentsioaniztuna eskaintzen du. Indizea lau azpieskalez osatzen da, non bakoitzak enpatiaren kontzeptu osoaren alderdi banandu bat deskribatzen duen. Kontzeptuaren lehendabiziko azpisailkapenak empatia kognitiboaren eta empatia afektibo-emozionalaren arteko desberdintasuna hartzen du haintzakotzat. Jatorriz **Interpersonal Reactivity Index** (IRI) deiturikoak bi azpieskala ematen ditu empatia kognitiboaren (perspektiba-hartzearen eta fantasiaren eskala) neurketarako, baita beste bi empatia afektibo-emozionalaren (ardura enpatikoaren eta ezinegon pertsonalaren eskala) neurketarako ere. Hala, jarraian aipatutako azpieskalak azaltzen dira modu laburrean:

Perspektiba-hartzearen eskala: beste pertsonen ikuspuntuak ulertzeko eta hartzeko bat-bateko saiakerak balioztatzen dira.

Fantasiaren eskala: pelikuletako, eleberrietako, antzerkigintzako eta bestelako fikziozko egoeretako pertsonaiekin identifikatzeko joera neurtzen da.

Ardura enpatikoaren eskala: gainontzekoen begikotasunaren, gupidaren eta arduraren sentimenduei buruz galdetzen da.

Ezinegon pertsonalaren eskala: gainontzekoen bizipen negatiboak behatzearen eraginez sortzen diren antsietate eta ezinegon pertsonalaren sentimenduak neurtzen dira.

Erreaktibotasun Interpertsonalaren Indizea (Davis, 1980) gizarte zientzietan erabiltzeko diseinatu zen, baina enpatiaren eskala dimentsioaniztuna eskaintzen duen argitalpen bakarra izatean, bere erabilpena bestelako diziplinetara hedatu da, ezarpen nabariena espektro austista nahasmenduagatik kaltetutako enpatiaren ikerketan izanik.

Galdetegia bere jatorrizko eredutik itzulia izan da eta generoari dagokionez, adierazpen neutroak erabiltzea lehenesten da, esaterako “norbait” edo “prtsona batzuk”, nahiz eta emaitzak generoaren arabera sailkatzen diren: gizonezkoak eta emakumezkoak.

Emaitzen interpretazioa:

Erreaktibotasun Interpertsonalaren Indizearen (Davis, 1980) azpieskala bakoitzean eskuratu daitekeen gutxieneko puntuazioa 0 da, eta gehiengoa 28. Testaren garapen prozesuan zehar, Mark H. Davisek 201 gizonezko eta 251 emakumezko aurkeztu zien galdetegia. Esperimentu hartan eskuratutako emaitzen batez bestekoa hurrengo taulan islatzen da, parentesi artekoa desbideratze estandarra izanik:

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Perspektiba-hartzearen eskala	16,78 ($\pm 4,72$)	17,96 ($\pm 4,85$)
Fantasiaren eskala	15,73 ($\pm 5,60$)	18,75 ($\pm 5,17$)
Ardura enpatikoaren eskala	19,04 ($\pm 4,21$)	21,67 ($\pm 3,83$)
Ezinegon pertsonalaren eskala	9,46 ($\pm 4,55$)	12,28 ($\pm 5,01$)

2. Taula: Interpersonal Reactivity Index-en emaitzen interpretazioa (Davis, 1980)

Datu hauei erreparatuz, Erreaktibotasun Interpertsonalaren Indizearen (Davis, 1980) galdetegia betetzean eskuratutako puntuazioa interpretatzeko modua gaineko taulako batez bestekoarekin alderatzean oinarritzen da.

Oro har, galdetegia 28 esaldik osatzen dute, zeinak askotariko egoeretan sortzen diren pentsamendu eta sentimenduen inguruan diharduten. Item bakoitzean esaldi horrek planteatzen duen afirmazioaren arabera zein mailatan deskribatzen zaituen adierazi behar da: **gutxi** (ez nau ongi deskribatzen) edo **asko** (oso ongi deskribatzen nau).

3.4. IKERKETAREN DISEINUA ETA PROZEDURA

Diseinuari dagokionez, ikerketa honen helburu orokorra irakasleak Adimen Gaitasun Handiko ikasleei erantzun egoki bat emateko gai ote diren aztertzea da eta hau eskuratzeko bi ataletan zatitutako galdetegia erabili da.

Prozeduran oinarrituz, honako urratsak jarraitu dira:

1. Teoria irakurtzea.
2. Galdera irekiak eraikitzea.
3. Enpatia (aldagaia) aztertzeko balidatutako galdetegia bilatzea eta aukeratzea.
4. Bi galdetegiak google formularioan jartzea.
5. Irakasleekin hitz egin eta haien baieztapena jasotzean galdetegiak bidaltzea.
6. Etikotasuna ziurtatzeko galdetegia anonimotasunean mantentzea.
7. Gure ingurukoei galdetegia zabaltzeko eskatzea.
8. Behin erantzuna jasota, analisi estadistikoa burutzea.

Bestalde, zorizko lagina denez, herri desberdinetako hainbat ikastetxeetara bidali da, bertako zenbait irakaslek betea izanik.

4. EMAITZAK

Ikerketa honen emaitzak atera eta interpretatzeko lehendabiziko urratsa lagina aztertzea eta honen deskribapena egitea izan da. Ondorengo, irakasleek gai honekiko duten ezagutza eta formakuntza zenbaterainokoa den ikertzea izan da eta azkenengoa, enpatiak hauen formakuntzarekin eta ezagutzarekin zenbateko erlazioa daukan behatzea.

Hori horrela, lanaren atal honetan eskuratutako emaitzen analisisia egingo da, emaitzak bi zatitan banatuta daudelarik. Alde batetik, Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntzaren eta ezagutzaren emaitza orokorrak daude eta bestetik, irakasleen enpatia mailari lotutako emaitzak. Halaber, eskuratutako datuak sektore-diagrametan adierazi dira, baita koerrelaziorako sakabanatze-grafikoetan ere.

Esan bezala, emaitza hauek anonimotasunean mantenduko dira partehartzaileen izenak aipatu gabe, ez baitute inolako eraginik ikerketa honetako emaitzetan.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Galdera orokorrak		Emakumeak (n=36)	Gizonak (n=15)	Nahiago du ez esan (n=1)	Guztira (N=52)
Adina	20-29	9	5	1	15
	30-39	4	7	0	11
	40-49	9	2	0	11
	50-59	9	4	0	13
	60-69	2	0	0	2
Urte kopurua hezkuntzan lanean	0-09	14	10	1	25
	10-19	3	2	0	5
	20-29	9	2	0	11
	30-39	10	1	0	11
	40-49	0	0	0	0
Laneko hezkuntza zentroa	Publikoa	32	9	1	42
	Pribatua	0	0	0	0
	Kontzertatua	4	6	0	10
Eskuratutako maila akademikoa	Gradua	18	8	0	26
	Graduondoa	0	2	0	2
	Masterra	3	2	1	6
	Doktoretza	1	0	0	1
	Lizentziatura	10	0	0	10
	Diplomatura	4	3	0	7
Adimen Gaitasun Handien inguruko ezagutza maila	Baxua	16	10	1	27
	Ertaina	18	4	0	22
	Altua	2	1	0	3
Adimen Gaitasun Handien	Bai	16	4	0	20

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

inguruan jasotako formazioa	Ez	20	11	1	32
Adimen Gaitasun Handiko pertsonekin izandako harreman maila	Baxua	23	10	1	34
	Ertaina	13	4	0	17
	Altua	0	1	0	1
Adimen Gaitasun Handiko pertsona bezala diagnostikatuta	Bai	1	1	0	2
	Ez	35	14	1	50
Ikaslego honi zuzendutako hezkuntza programa berezirik egon beharko litzateke?	Bai	35	14	1	50
	Ez	1	1	0	2
Lan egiten duzun zentroan ezagutzen al duzu ikasle hauei zuzendutako protokolo edo planik?	Bai	8	2	1	11
	Ez	28	13	0	41
Adimen Gaitasun Handiko ikasleek hezkuntza berezi bat izan beharko lukete?	Bai	31	11	1	43
	Ez	5	4	0	9
Adimen Gaitasun Handiko ikaslegoari zuzendutako harrera plana ezagutzen duzu?	Bai	14	4	0	18
	Ez	22	11	1	34

3. Taula: Ad-HOC galdetegi kuantitatiboa: galdera soziodemografikoak eta irekiak.


Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Aztergai dugun hirugarren taulak lehenengo helburu espezifikorako emaitzak batzen ditu, non irakaslegoaren ezagutza eta formakuntza maila Adimen Gaitasun Handien inguruan zenbaterainokoa den ikertzen den. Beraz, honakoa ondorioztazen da:


Partaideen artean %5,8ak erakusten du Adimen Gaitasun Handien inguruko ezagutza maila altua, %42,3ak ezagutza maila ertaina eta %51,9ak ezagutza maila baxua. Generoaren arabera sailkatuz gero, bi emakumezko eta gizonezko bat dira ezagutza maila altua daukatenak. Ezagutza maila ertainari dagokionez, hemezortzi emakumezkoak dira eta lau gizonezkoak. Azkenik, ezagutza maila baxuari erreparaturaz, hamasei emakumezko, hamar gizonezko eta zehaztu gabeko bat daude.

Honi lotuta, Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntzari dagokionez, parte hartu duten irakasleen %38,5ak formazioa du eta %61,5ak ez du formaziorik. Generoari dagokionez, hamasei emakumezko eta lau gizonezko dira gaiaren inguruan formakuntzaren bat jaso dutenak. Formakuntzarik gabeko irakasleen artean, aldiz, hogeitun emakumezko, hamaika gizonezko eta zehaztu gabeko bat daude.

Orobat, orokorrean Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntza jaso duten irakasleek ezagutza maila aberatsagoa erakusten dute formakuntzarik jaso ez dutenekin alderatuz. Beraz, formakuntzak eragina dauka irakasle batek barneratzen dituen ezagutzetan eta honi esker, kolektibo honetako ikasleen profil ezberdinak, ezaugarriak eta beharrianak identifikatzeko gai izango dira. Modu honetan, gaitasun handiko ikasleak identifikatzearekin batera, hauetako bakoitzari erantzun egokia emateko trebezia erakutsiko du irakasleak eta honela, ikaslearen potentzialtasunari etekin aproposa aterako dio (Parker, 1996).



6. Grafikoa: Irakasleen ezagutza maila gaitasun handien inguruan.



7. Grafikoa: Irakasleen formakuntza gaitasun handien inguruan.

Bigarrenengo helburu espezifikoari dagokionez, Davisen Erreaktibotasun Interpersonalaren Indizea (1980) erabili da irakaslegoaren enpatia maila zenbatekoa den aztertzeko. Hala, jarraian dagoen taulan ikus daitekeen bezala, datu horietara iristeko eta dena hobeto interpretatzeko, emaitzak (batez bestekoa) generoaren arabera sailkatu dira:

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Perspektiba-hartzearen eskala	16,73 (\pm 4,69)	18,97 (\pm 3,85)
Fantasiaren eskala	15,07 (\pm 5,94)	19,03 (\pm 4,87)
Ardura enpatikoaren eskala	19,07 (\pm 4,11)	20,22 (\pm 3,61)
Ezinegon pertsonalaren eskala	9,13 (\pm 4,32)	12,67 (\pm 5,49)

4. taula: Irakasleen enpatia maila Davisen lau eskalen arabera.

Aztergai dugun taulan enpatia osatzen duten lau azpiezkala daude (Davis, 1980), non bakoitzean eskuratu daitekeen gutxieneko puntuazioa 0 den eta gehiengoa 28. Galdetegiak 28 esaldi ditu eta partaide bakoitzak esaldi guztiak betetzean, eskala bakoitzeko puntuazio bat eskuratu eta generoaren arabera elkarren arteko batez bestekoa egin da, parentesi artekoa desbideratze estandarra izanik. Modu honetan, generoen artean ezberdintasun esanguratsurik ez dagoela ikus daiteke, haien arteko batez bestekoak nahiko antzekoak eta hurbilak baitira lau eskaletan. Beraz, irakasleen enpatia maila ez da generoaren araberakoa. Gainera, Mark H. Davisek testaren lehendabiziko esperimentuan (1980. urtean) eskuratutako emaitzen batez bestekoarengandik gertu daude Gradu Amaierako Lan honetako ikerketan lortutako emaitzak.

Emaitzekin amaitzen joateko, hirugarren helburu espezifikoari erantzuna ematen dioten koerrelazio grafikoak ageri dira jarraian. Azken helburu espezifikoa da irakasle bakoitzaren enpatia mailak Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntzan eta ezagutzan zenbaterainoko eragina duen ikertzea. Honetarako, zortzi eskala daude ikusgai, hauetako lau formakuntzari lotutakoak izanik eta beste lau ezagutza mailari lotutakoak, honela errazagoa baita elkarren arteko alderaketa burutzea edota loturak bilatzea. Hala, formakuntza daukaten irakasleak 20 (%38,46) dira eta formakuntzarik gabekoak 32 (%61,54). Ezagutza mailari dagokionez, irakasleen %5,8ak Adimen Gaitasun Handien inguruko ezagutza maila altua du, %42,3ak ezagutza maila ertaina eta %51,9ak ezagutza maila baxua.

Halaber, aintzat hartzekoa da enpatia maila neurtzeko jada azaldutako lau eskala bereizten dituela Davisek (1980): perspektiba-hartzearen eskala, fantasiaren eskala, arduraren enpatikoaren eskala eta ezinegon pertsonalaren eskala. Modu honetan, eskala bakoitzeko bi grafiko daude, non bata formakuntzara bideratuta dagoen eta bestea, ordea, ezagutza mailara, jada aipatutako zortzi grafikoaren artean, noski.

Hori horrela, datu horietara iristeko eta dena hobeto interpretatzeko, koerrelazioan oinarritutako sakabanatze-grafikoaren bidez adierazi dira emaitzak. Modu honetan, irakasleen enpatiak gaitasun handien inguruan formatzeko eta ezagutzak barneratzeko premian eta nahian eragina duen ondorioztatuko da.

Oro har, grafikoaren egiturari dagokionez, honela eraiki dira sakabanatze-grafikoak:

- **Enpatia eta formakuntzaren arteko koerrelazio grafikoak.**


Ardatz horizontalak irakasleek eskala bakoitzean lortutako enpatia maila adierazten du, non puntuazio baxuena 0 den eta altuena 28. Ardatz bertikalak, ordea, formakuntza maila adierazten du, non 0 formakuntza gabezia den eta 1 formakuntza jaso.

Egitura edo antolaketa honi esker, irakasle bakoitzaren enpatiaren eta formakuntza mailaren arteko koerrelazioa irudikatu nahi da ikerketa honen hirugarren helburu espezifikoaz aztertzeko: irakasle bakoitzaren enpatia mailak Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntzan eta ezagutzan zenbaterainoko eragina duen ikertzea.


- **Enpatia eta ezagutza mailaren arteko koerrelazio grafikoak:**

Ardatz horizontalak irakasleek eskala bakoitzean lortutako enpatia maila adierazten du, non puntuazio baxuena 0 den eta altuena 28. Ardatz bertikalak, ordea, formakuntza maila adierazten du, non 0 formakuntza gabezia den eta 1 formakuntza jaso.

Egitura edo antolaketa honi esker, irakasle bakoitzaren enpatiaren eta ezagutza mailaren arteko koerrelazioa irudikatu nahi da ikerketa honen hirugarren helburu espezifikoaz aztertzeko: irakasle bakoitzaren enpatia mailak Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntzan eta ezagutzan zenbaterainoko eragina duen ikertzea.



8. Grafikoa: Perspektiba-hartzearen eskala eta irakasleen formakuntza.



9. Grafikoa: Perspektiba-hartzearen eskala eta irakasleen ezagutza maila.


Aztergai ditugun lehendabiziko bi grafiko hauetan irakasleek Adimen Gaitasun Handien inguruan daukaten formakuntza eta zagutza maila haietako bakoitzaren enpatia mailarekin erlazionatzen da, zehazki Davisen (1980) perspektiba-hartzearen eskalarekin. Horretarako, grafikoak bitan sailkatu dira. Alde batetik, gaiarekiko formakuntzadun eta formakuntzarik gabeko irakasleen grafikoa dago eta bestetik, ezagutza maila altua, ertaina edo baxua duten irakasleena. Modu honetan, bi taldeen arteko alderaketa egin daiteke, non enpatiak irakasleen formakuntzan eta ezagutza mailan eragina duen ala ez islatzen den.

Hortaz, bi grafikoak aztertzean ageri diren ezberdintasunen inguruan hausnartu ostean, hurrengoa ondorioztatzen da:


Alde batetik, Adimen Gaitasun Handien inguruan formakuntza daukaten irakasleek formakuntzarik gabeko irakasleek baino enpatia gehiago erakusten dute, hain zuzen ere perspektiba-hartzearena. Beraz, emaitzek diote enpatia mailak eragina duela formakuntzan. Hori dela medio, geroz eta enpatia gehiago izan, geroz eta premia gehiago sentituko du irakasleak Gaitasun Handiko ikasleei laguntza eskaintzeko eta baita erantzun egoki bat emateko ere. Era berean, irakasleak gai honen inguruan formatzeko beharra ikusiko du eta ikaslearen beharrianak asetzearekin batera, honen potentzialtasunari ahalik eta etekin handiena ateratzeko aukerak areagotuko dira.

Beste alde batetik, formakuntza erakusten duten irakasle horien artean, gaitasun handien inguruko ezagutzak aberatsagoak dira, formatuta daudenek enpatia gehiago erakustez gain, formazioan barneratutako ezagutzak eraginkorrak izan baitira eta ez ahaztuak.

Beraz, bi grafikoak alderatzean elkarren arteko lotura nabarmen bat atera daiteke, hau da, enpatia gehiago daukaten irakasleek formakuntza bat jaso dute eta formakuntza honi esker, gaiarekiko ezagutzak aberastu eta elikatu dituzte. Hortaz, enpatiak eragina dauka irakasleen formakuntzan eta ondorioz, ezagutza mailan.



10. Grafikoa: Fantasiaren eskala eta irakasleen formakuntza.



11. Grafikoa: Fantasiaren eskala eta irakasleen ezagutza maila.


Aztergai ditugun honako bi grafiko hauetan irakasleek Adimen Gaitasun Handien inguruan daukaten formakuntza eta ezagutza maila haietako bakoitzaren enpatia mailarekin erlazionatzen da, zehazki Davisen (1980) fantasiaren eskalarekin. Horretarako, grafikoak bitan sailkatu dira. Alde batetik, gaiarekiko formakuntzadun eta formakuntzarik gabeko irakasleen grafikoa dago eta bestetik, ezagutza maila altua, ertaina edo baxua duten irakasleena. Modu honetan, bi taldeen arteko alderaketa egin daiteke, non enpatiak irakasleen formakuntzan eta ezagutza mailan eragina duen ala ez islatzen den.

Hortaz, bi grafikoak aztertzean ageri diren ezberdintasunak behatuz, hurrengo ondorioztatzen da:


Alde batetik, Adimen Gaitasun Handien inguruan formakuntza daukaten irakasleek formakuntzarik gabeko irakasleek baino enpatia gehiago erakusten dute, hain zuzen ere fantasiarena. Beraz, emaitzek diote enpatia mailak eragina duela formakuntzan. Hori dela medio, geroz eta enpatia gehiago izan, geroz eta premia gehiago sentituko du irakasleak Gaitasun Handiko ikasleei laguntza eskaintzeko eta baita erantzun egoki bat emateko ere. Era berean, irakasleak gai honen inguruan formatzeko beharra ikusiko du eta ikaslearen beharrianak asetzearekin batera, honen potentzialtasunari ahalik eta etekin handiena ateratzeko aukerak areagotuko dira.

Beste alde batetik, formakuntza erakusten duten irakasle horien artean, gaitasun handien inguruko ezagutzak aberatsagoak dira, formatuta daudenek enpatia gehiago erakustez gain, formazioan barneratutako ezagutzak eraginkorrak izan baitira eta ez ahaztuak.

Beraz, bi grafikoak alderatzean elkarren arteko lotura nabarmen bat atera daiteke, hau da, enpatia gehiago daukaten irakasleek formakuntza bat jaso dute eta formakuntza honi esker, gaiarekiko ezagutzak aberastu eta elikatu dituzte. Hortaz, enpatiak eragina dauka irakasleen formakuntzan eta ondorioz, ezagutza mailan.



12. Grafikoa: Ardura enpatikoaren eskala eta irakasleen formakuntza.



13. Grafikoa: Ardura enpatikoaren eskala eta irakasleen ezagutza maila.


Aztergai ditugun bi grafiko hauetan irakasleek Adimen Gaitasun Handien inguruan daukaten formakuntza maila haietako bakoitzaren enpatia mailarekin erlazionatzen da, zehazki Davisen (1980) ardura enpatikoaren eskalarekin. Horretarako, grafikoak bitan sailkatu dira. Alde batetik, gaiarekiko formakuntzadun eta formakuntzarik gabeko irakasleen grafikoa dago eta bestetik, ezagutza maila altua, ertaina edo baxua duten irakasleena. Modu honetan, bi taldeen arteko alderaketa egin daiteke, non enpatiak irakasleen formakuntzan eta ezagutza mailan eragina duen ala ez islatzen den.

Hortaz, bi grafikoak aztertzean ageri diren ezberdintasunen inguruan hausnartu ostean, hurrengo ondorioztatzen da:


Alde batetik, Adimen Gaitasun Handien inguruan formakuntza daukaten irakasleek formakuntzarik gabeko irakasleek baino enpatia gehiago erakusten dute, hain zuzen ere ardura enpatikoarena. Beraz, emaitzek diote enpatia mailak eragina duela formakuntzan. Hori dela medio, geroz eta enpatia gehiago izan, geroz eta premia gehiago sentituko du irakasleak Gaitasun Handiko ikasleei laguntza eskaintzeko eta baita erantzun egoki bat emateko ere. Era berean, irakasleak gai honen inguruan formatzeko beharra ikusiko du eta ikaslearen beharrianak asetzearekin batera, honen potentzialtasunari ahalik eta etekin handiena ateratzeko aukerak areagotuko dira.

Beste alde batetik, formakuntza erakusten duten irakasle horien artean, gaitasun handien inguruko ezagutzak aberatsagoak dira, formatuta daudenek enpatia gehiago erakustez gain, formazioan barneratutako ezagutzak eraginkorrak izan baitira eta ez ahaztuak.

Beraz, bi grafikoak alderatzean elkarren arteko lotura nabarmen bat atera daiteke, hau da, enpatia gehiago daukaten irakasleek formakuntza bat jaso dute eta formakuntza honi esker, gaiarekiko ezagutzak aberastu eta elikatu dituzte. Hortaz, enpatiak eragina dauka irakasleen formakuntzan eta ondorioz, ezagutza mailan.



14. Grafikoa: Ezinegon pertsonalaren eskala eta irakasleen formakuntza.



15. Grafikoa: Ezinegon pertsonalaren eskala eta irakasleen ezagutza maila.

Aztergai ditugun azken bi grafiko hauetan irakasleek Adimen Gaitasun Handien inguruan daukaten formakuntza maila haietako bakoitzaren enpatia mailarekin erlazionatzen da, zehazki Davisen (1980) ezinegon pertsonalaren eskalarekin. Horretarako, grafikoak bitan sailkatu dira. Alde batetik, gaiarekiko formakuntzadun eta formakuntzarik gabeko irakasleen grafikoa dago eta bestetik, ezagutza maila altua, ertaina edo baxua duten irakasleena. Modu honetan, bi taldeen arteko alderaketa egin daiteke, non enpatiak irakasleen formakuntzan eta ezagutza mailan eragina duen ala ez islatzen den.

Hortaz, bi grafikoak aztertzean ageri diren ezberdintasunak behatuz, hurrengoa ondorioztatzen da:

Alde batetik, Adimen Gaitasun Handien inguruan formakuntza daukaten irakasleek formakuntzarik gabeko irakasleek baino enpatia gehiago erakusten dute, hain zuzen ere ezinegon pertsonalarena. Beraz, emaitzek diote enpatia mailak eragina duela formakuntzan. Hori dela medio, geroz eta enpatia gehiago izan, geroz eta premia gehiago sentituko du irakasleak Gaitasun Handiko ikasleei laguntza eskaintzeko eta baita erantzun egoki bat emateko ere. Era berean, irakasleak gai honen inguruan formatzeko beharra ikusiko du eta ikaslearen beharrianak asetzearekin batera, honen potentzialtasunari ahalik eta etekin handiena ateratzeko aukerak areagotuko dira.

Beste alde batetik, formakuntza erakusten duten irakasle horien artean, gaitasun handien inguruko ezagutzak aberatsagoak dira, formatuta daudenek enpatia gehiago erakustez gain, formazioan barneratutako ezagutzak eraginkorrak izan baitira eta ez ahaztuak.

Beraz, bi grafikoak alderatzean elkarren arteko lotura nabarmen bat atera daiteke, hau da, enpatia gehiago daukaten irakasleek formakuntza bat jaso dute eta formakuntza honi esker, gaiarekiko ezagutzak aberastu eta elikatu dituzte. Hortaz, enpatiak eragina dauka irakasleen formakuntzan eta ondorioz, ezagutza mailan.

5. ONDORIOAK ETA EZTABAIDAK

Adimen Gaitasun Handiak izateak adimen potentzial altua edukitzea suposatzen du (Aupatuz, 2021) eta Jeanne Siaud-Facchin psikoterapeutaren “Demasiado inteligente para ser feliz” (2014) liburuak dioen bezala, gaitasun handiak edukitzea argia eta bizkorra izateko modu bat da, batez bestekotik haratago doan funtzionamendu intelektuala izatea, alegia. Hori dela medio, abenduaren 9ko, hezkuntza arloko, 8/2013 Lege Organikoak adimen-gaitasun handiko ikasle guztiek beren gaitasunetara egokituta dagoen hezkuntza espezifiko bat jasotzeko duten eskubidea aitortzen du, gaitasun handiko ikasleak hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleen artean sartuz.

Hori kontuan izanik, Gradu Amaierako Lan honen ondorioak eta eztabaidak ateratzeko baliagarria den taula ageri da jarraian, non hasierako helburuak, hipotesiak eta eskuratutako emaitzak biltzen diren:

HELBURUAK	HIPOTESIAK	EMAITZAK
Irakaslegoaren formakuntza eta ezagutza maila Adimen Gaitasun Handien inguruan zenbaterainokoa den ikertzea	Irakaslegoak formazio eta ezagutza falta erakutsiko du	✓
Irakaslegoaren enpatia maila zenbatekoa den aztertzea	Irakaslegoak enpatia maila nahiko altua izango du.	✓
Irakasleen enpatiak gaitasun handien inguruan formatzeko eta ezagutzak barneratzeko premian eta nahian eragina duen ondorioztatzea.	Irakasleen enpatiak gaitasun handien inguruan formatzeko eta ezagutzak barneratzeko premian eta nahian erabateko eragina duela ikusiko da.	✓

5. Taula: Helburuak, hipotesiak eta emaitzak

Laburpen taulan ikus daitekeen bezala, helburu bakoitzeko hipotesi bat dago eta emaitzei erreparaturik, guztiak egiaztatu dira. Emaitza horietara iristeko ikerketa bat erabili da eta hori aurrera eramateko, ezinbestekoa izan da bi galdetegi baliatzea: Ad-HOC galdetegi kualitatiboa eta IRI galdetegi kuantitatiboa (Davis, 1980).

Lehendabiziko helburuari dagokionez, burututako ikerketak hipotesia baieztatu du eta ondorioz, irakasleen ehuneko handi batek (%61,5ak) Adimen Gaitasun Handien inguruko formazio falta duela ikusi da. Halaber, irakasleen %51,9ak ezagutza maila baxua erakutsi du, ezagutza maila altua irakasleen %5,8ak soilik izanik. Beraz, datuen ebidentzia ikusita, irakasleok ez du behar besteko ezagutzarik Adimen Gaitasun Handien inguruan, ezta formakuntza nahikorik ere. Dena den, emaitzak lortu aurretiko eztabaida nagusia helburuari lotuta zegoen, hots, irakasleek gaiaren inguruan formakuntza duten ala ez frogatzea, baita horrekiko duten ezagutza maila behatzea ere: Baxua, ertaina edo altua.

Bigarren helburuan oinarrituz, ikerketan jasotako datuek hipotesia baieztatu dute eta ondorioz, irakasleok enpatia maila nahiko altua dela ikusi da. Izan ere, Mark H. Davisek testaren lehendabiziko esperimentuan (1980. urtean) eskuratutako emaitzen batez bestekoarengandik gertu daude ikerketa honetan lortutako emaitzak. Gainera, emaitzen hurbiltasuna enpatia osatzen duten lau azpieskaletan gertatzen da, hain zuzen ere, perspektiba-hartzearen eskalan, fantasiaren eskala, ardura enpatikoaren eskalan eta ezinegon pertsonalaren eskalan. Hala ere, emaitzak lortu aurretiko eztabaida nagusia helburuari lotuta zegoen, hau da, irakasleek zenbaterainoko enpatia duten frogatzea, hots, maila baxua, ertaina edo altua.

Hirugarren helburuari erreparaturik, gauzatutako ikerketak hipotesia baieztatu du eta ondorioz, irakasleen enpatiak gaitasun handien inguruan formatzeko eta ezagutzak barneratzeko nahian erabateko eragina edota zerikusia duela ikusi da. Izan ere, enpatia maila handiagoa duten irakasleek formazioa dutela erakutsi dute, baita honi esker barneratutako edukien ezagutza maila altua ere. Aldiz, enpatia maila baxuagoa erakutsi duten irakasleek ez dute formakuntzarik jaso eta gaitasun handien inguruko ezagutza maila baxua dutela ikusi da. Nolanahi ere, emaitzak lortu aurretiko eztabaida nagusia helburuari lotuta zegoen, hau da, irakasleen enpatiak hauen formakuntzan eta ondorioz, ezagutzen barneraketan eragina duen ala ez frogatzea.

Oro har, ikerketan eskuratutako frogen ebidentzian oinarrituz, partaideen gehiengoak Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntza falta eta ezagutza maila baxua erakutsi du.

Enpatiari dagokionez, ikerketako parte-hartzaileen zati handi batek enpatia maila altua duela ikusi da eta kasualitatezkoa edo zorizkoa izan arren, hauek dira gaiarekiko formakuntza eta ezagutza maila handiena erakutsi dutenak. Beraz, enpatiak eragina du formazioan eta ondorioz, baita ezagutza mailan ere.

Lanean zehar azaldu bezala, gaitasun handiko ikasleek beharizan eta ezaugarri zehatz batzuk dituzte, ez soilik kognitibo-intelektualak. Izan ere, ikasleen garapenari dagozkion hainbat arloren garapenean desoreka erakusten dute, hots, ez dira berdin garatzen eremu sozial, kognitibo, psikomotor eta afektiboan (Perez, 2006). Gainera, gaitasun handiko ikasleek adimen-koefiziente altua izatearren laguntzarik behar ez dutela pentsatzen da eta guztiz okerra da ideia hau. Hezkuntza premia bereziak ematen direnean, ez da beti urritasunen baten ondorioz izan behar, nahiz eta askotan horrela den. Gaitasun handiko ikasleek behar bereziak dituzte eta hortaz, irakaslegoa prest egon behar da premia hauei guztieri erantzun egoki bat emateko (Berritzegunea, datarik gabe). Prestakuntza hori formazioari esker lortzen da eta ikerketako emaitzetan oinarrituz, enpatiak berebiziko garrantzia du formakuntza horretan. Izan ere, irakasleak zenbat eta enpatia gehiago izan, ikaslegoari erantzun egokia emateko behar gehiago sentituko du eta honela, ezagutzak barneratzeko formazio bila hasiko da. Enpatiari eta eskuratutako formakuntzari esker, irakasleak ikaslea ulertu eta dituen beharizanak identifikatzearekin batera, honen premiak asetu eta eragin baikorrak ekarriko dizkio ikasleari: motibazioa sustatzea, bere buruarengan konfiantza izatea, potentzialtasunari etekin handiena ateratzea... eta abar. Gainera, motibazio honi esker, ikaslea aktibo egongo da gelan eta ez da aspertuko (Parker, 1996).

Horrez gain, enpatiak formakuntzarekin zerikusia izan arren, berebiziko garrantzia du irakasle eta ikasleen arteko harremanean. Izan ere, enpatia gaitasun handiko haurren sentsibilitate altuari estuki lotuta dago (Menéndez, 2021) eta honetan irakaslearen gaitasun enpatikoak funtsezko garrantzia dauka, ikasleen motibazioan, estimulazioan eta garapen akademikoan modu baikorrean eragiten baitu (Lehen Urratsak, 2018). Ikasle hauen intentsitate emozionala oso garatua dago eta ondorioz, oso sentikorrek dira, emozio biziak erakusten dituztelarik (Aretxaga, 2013; eta Calero, García eta Gómez, 2007). Hori dela medio, irakasleek kontu handiz jokatu behar dute ikasle hauekin hanka sarturik egin ez dezaten. Honexegatik, irakaslearen irudiak botere handia du irakas-ikaskuntza prozesuan, bereziki ikasleen garapen akademikoan, emozionalean eta sozialean. Izan ere, Morenok (2019) dioen bezala, irakasle batzuk ikasleen bizitzan arrasto nabaria uzteko gai dira, baina inoiz pentsatu al duzu zein den horren arrazoa? Erantzuna enpatian egon daiteke.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Ildo beretik jarraituz, Finlandiako Turku hiriko Unibertsitatean eta Jyväskylä Unibertsitatean burututako “Lehen Urratsak” ikerketak dio (2018) enpatiaren balioak berebiziko indarra daukela ikasleengan, hauen motibazioa, estimulazioa eta garapen akademikoan modu baikorrean eragiten duelarik. Ikerketa honetarako Alcagi elkarteari egindako elkarrizketan (2021) jasotakoa aintzat hartuz, ikasle guztien kasuan bezala, oso garrantzitsua da irakaslearen enpatia gaitasun handia duten ikasleekiko. Enpatiarik ez badago, tratu txarra egon daiteke alderdi emozionalean eta ondorioz, ikasleari eskolara joan nahi ez izatea eragin diezaioke, baita jazarpen kasuetan bezala bestelako minak eragin ere. Gainera, enpatia faltak ikasleak ikasgaia begitan hartzea eragin dezake eta ondorioz, ikasteari uztea, alferragoa bilakatzea, motibazioa eta interesa galtzea edota esfortzurik ez egitea bultzatzea; eta azkenik, porrot akademikoan erortzea.

Funtsean, Adimen Gaitasun Handiko haurren beharrianak norberaren gabeziatik edota trebezietatik ager daitezke, biek ongizate integralean eraginez, hots, osasun kognitiboan, emozionalean, sozialean eta fisikoan. Hori dela medio, ezinbestekoa da haur bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak ezagutzea (Elices, Palazuelo eta Del Caño, 2006), eskainiko zaion hezkuntza eta laguntza beti haietako bakoitzari egokitzeko. Era berean, ikasle hauek dituzten beharrianak asetzeko hezkuntza-erantzun egoki bat emateko prest egon behar da irakaslegoa (Berritzegunea, datarik gabe). Prestakuntza hori premiazkoa, espezifikoa eta sakona izan behar da, ezagutzen ez dena ez baita identifikatuko eta ondorioz, ikasleek ez dute behar duten hezkuntza arreta jasoko (Aupatuz, 2021). Azken batean, formazioan barneratutako ezagutzak dira ikasle hauei erantzun egoki bat emateko bide bakarra (Alcagi, 2021).

Dena den, Adimen Gaitasun Handien inguruko formazioa posible izateko, irakasle bakoitzak bere kabuz jaso dezake, baina aproposena eskolek honelako zerbitzuak eskaintzea izango litzateke, baita gutxieneko informazioa banatu ere. Horretarako, Alcagi eta Aupatuz bezalako elkarteak daude, non gaitasun handien inguruko gomendioak eta formazioak ematen dituzten. Era berean, ezinbestekoa da eskolaren, irakaslearen eta familiaren arteko harremana mantentzea, hiru hauek baitira ikaslearen etapa honetan berarekin denbora gehien egongo direnak. Azken finean, ehuneko handi batean eskolaren eta irakaslegoaren esku dago ikasleen etapa akademikoa esperientzia baikorra, aberatsa eta esaguratsua izatea. Hala ez bada, ondorio latzak ekar diezazkioke haurrari epe labur edota luzean, eta ez soilik porrot akademikoa (Hernandez, 2017).

Aitzitik, irakasleak enpatiarik erakusten ez badu, ez du ikaslea ulertuko eta ondorioz, ez du laguntza eskaintzeko beharrik ikusiko. Honelako jarreraren eraginez, irakaslea gaitasun handien inguruko ezagutza maila mugatua edota hutsean geldituko da, inolako formaziorik bilatu gabe eta honek gabeziak sor ditzake ikaslearen: arazo emozionalak, sozialak, kognitiboak... bere potentzialtasunari inolako etekinik atera gabe. Honek ikaslearen autoestimuan eta desmotibazioan eragiteaz gain, errendimendu akademikoa jaitsi dezake (Mújica, 2015). Beraz, enpatia oinarritzkoa da irakas-ikaskuntza prozesuan, baina ekarrenganako izan behar da. Halaber, Coveyk (2019) esan bezala, “lehendabizi, saiatu ondokoa ulertzen, eta ondoren saia zaitez gainontzekoek zu ulertzen”.

Beraz, irakaslea Gaitasun Handien inguruan formatuta egon behar da ikasle hauek identifikatzeko eta ditzuzten beharriaz erantzun egokia emateko. Orobat, ezinbestekoa da ikasgela giroa egotea, non irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana paregabea, hurbila eta benetakoa den, enpatian eta estimuan oinarritzen dena, alegia (Vaello, 2011). Honi esker, ikaslea baloratua, ulertua, errespetatua eta lagundua sentituko da, barnealdean sortzen dion motibazioaren eraginez arlo guztietan bere potentzialtasunari etekin handiena emateko. Dena den, batez bestekoaren gainetik dagoen adimena edukitzeaz gain, ezin da ahaztu ikasle hauek haien adinekoekiko garapen ezberdina dutela, bereziki emozionalki eta sozialki (Perez, 2006). Ondorioz, askotan “ezberdinak” sentitzen direnez, onartuak izateko ditzuzten talentuak ezkutatzeko joera dute, baita presio sozial eta familiarragatik ere. Hortaz, funtsezkoa da irakasleek ikaslearen aurpegi eta hauen emaitza akademikotik haratago ikusteko gaitasuna edukitzea kalitatezko heziketa baterako (Lehen Urratsak, 2018). Azken batean, Renzullik EIBZko liburutegian argitaratutako elkarrizketa (2014) batean esan bezala: “Irakaslearen rola umeei informazio hutsa emateaz harago doa”.

Laburbilduz, ikerketan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako irakaslearen datuei dagokionez, enpatia altua erakutsi dute formakuntza jaso dutenek, baita honi esker lortutako ezagutza maila altua ere. Aldiz, enpatia baxuagoko irakasleek formazio eza edo ezagutza maila baxua erakutsi dute eta zentzuzkoa den bezala, irakasle baten formakuntza mailak berebiziko garrantzia du ikaslearen erantzun egoki bat emateko garaian (Berritzegunea, datarik gabe). Hala ere, enpatiarik, formakuntzari eta ezagutza mailari dagokionez, ez dago desberdintasun edo desbideratze nabaririk generoen eta adinaren artean.

6. GATAZKAK ETA IRTENBIDEAK

Gradu Amaierako Lanean zehar izandako gatazka handiena ikerketa aurrera eramateko galdetegia izan da. Hasierako unean sortutako galdetegia bi ataletan banatzen zen. Alde batetik, Ad-HOC galdetegia zegoen eta bestetik, aldagai ezberdinen galdetegia.

Ad-HOC galdetegi kualitatiboa hamabost galdera laburrez (soziodemografikoak eta irekiak) osatua zegoen. Aldagaien galdetegia, ordea, 231 galderek osatzen zuten. Beraz, bi atalen artean 246 galdera zituen ikerketarako hasierako galdetegiak.

Galdetegi kualitatiboa formakuntzari zuzenduta zegoen eta galdetegi kuantitatiboa, ordea, enpatiari, antsietateari eta autoestimuari, non hauetako bakoitzak bere inguruko hainbat galdera zituen. Galdetegian aldagai ezberdinen inguruko galderak egotearen arrazoa da Adimen Gaitasun Handien inguruko GrALa hiru pertsonen hautatu izana. Hori dela medio, ikerketarako bakoitzak bere galdetegia sortu beharrean, hirurentzat bat sortzea erabaki zen, non formakuntzari eta aldagaiei lotutako 246 galdera zeuden.

Asteak eta hilebeteak igaro ahala, galdetegi hark arrakastarik izan ez zuela ikusi zen, hamaika pertsonen soilik bete baitzuten galdetegia. Gainera, hamaika hauetatik bost oraindik ikasleak ziren, beraz, baliozko erantzunak sei pertsonenak ziren. Egoera honen aurrean, erabaki bat hartu beharra zegoen, Gradu Amaierako Lana den bezalako lan garrantzitsu batean honelako lagina xumea aurkeztea lotsagarria baita. Hala ere, galdetegi haren arrakasta faltaren arrazoiak ezagutu nahian, honakoak nabarmentzen dira: luzeera (246 galdera) eta hedapen murriztua. Beraz, emaitza urri hauekiko etsipenaren aurrean, egoerari bira eman eta irtenbidea galdetegia hutsetik hastea izan zen, oraingoan lagina aberatsagoa eskuratzeko helburuarekin.

Gradu Amaierako Lan honen ikerketa formakuntzaren eta enpatiaren datuak biltzean oinarritzen denez, funtsezkoa da galdetegia harira joatea, beste bi aldagaiek (antsietateak eta autoestimua) ez dutelako ikerketa honekin inolako loturarik. Hortaz, arazo-egoera honen ebazpena galdetegia bitan sailkatzea izan zen: Ad-HOC galdetegia eta Interpersonal Reactivity Index (IRI) testa.

Lehendabiziko zatia (Ad-HOC), galdetegi kualitatiboa da eta hamabost galdera laburrez (soziodemografikoak eta irekiak) osatzen da. Atal honek irakasleek Adime Gaitasun Handien inguruan zenbaterainoko formakuntza eta ezagutza maila duten ikertzeko datuak

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

batzen ditu. IRI testak, ordea, irakasleen enpatia maila neurtzeko balio du, non Davisek (1980) enpatia osatzen duten lau azpieskala azpimarratzen dituen: perspektiba-hartzearen eskala, fantasiaren eskala, ardura enpatikoaren eskala eta ezinegon pertsonalaren eskala. Test honetan 28 galdera daude eta azpieskala bakoitzean eskuratu daitekeen gutxieneko puntuazioa 0 da, eta gehiengoa 28.

Behin egoerari konponbidea bilatuta, galdetegia ahalik eta gehien hedatzeko unean eta horretarako, mugitu beharra zegoen. Ahaleginak egin ostean, esfortzuak bere fruituak ekarri zituen eta egun gutxitan 52 partaidek osatutako lagina eskuratu nuen buru belarri ibiltzeari esker. Datu hauek guztiekin ikerketa aberatsagoa ateratzeko aukerak areagotu ziren, eta hala izan da.

Horrez gain, etorkizuneko lerroetan sakonduz, Gaitasun Handien inguruan ikertzen jarraitu beharko litzateke. Gradu Amaierako Lan honen helburu orokorra irakasleak Adimen Gaitasun Handiko ikasleei erantzun egoki bat emateko gai ote diren aztertzea izanik, honetan eta formakuntzan enpatiak izan dezakeen eraginean ardaztu da. Horrexegatik, interesgarria izango litzateke ikerketan irakasleez gain, familiak eta gaitasun handiko ikasleak kontuan hartzea. Honela, emaitzetan datu ezberdinak ateratzearekin batera, ikuspuntu ugariak eskuratuko lirateke, pertsona bezala asko aberastuko luketenak. Halaber, kasu honetan irakasleen enpatiak hauen formakuntzan eta ezagutza mailan zenbaterainoko eragina duen ikertu den bezala, ideala izango litzateke etorkizunean irakasleen enpatiak gaitasun handiko ikasleengan nolako eragina izan dezakeen aztertzea.

Oro har, kontuan izanda Gradu Amaierako Lan honetako ikerketan 52 partaideetatik bi irakasleek Adimen Gaitasun Handiak dituztela, biek gaiaren inguruko formakuntza jaso dutela eta gaitasun handien inguruko ezagutza maila zein enpatia maila altua dutela, interesgarria izango litzateke etorkizuneko ikerketa batean horren inguruan aztertzea eta esaterako, honelako galderei erantzutea:

- Gaitasun handiak dituen irakasle batek gaitasun hauek ez dituen irakasle batek baino hezkuntza-erantzun egokiagoa ematen ote dio gaitasun handiko ikaslegoari?
- Nola eragin diezaioke gaitasun handiak dituen irakasle batek kolektibo honetako ikaslegoari? Eta gaitasun hauek ez dituen irakasle batek?
- Gaitasun handiak dituen irakasle batek gaitasun hauek ez dituen irakasle batek baino errazago identifikatuko eta ulertuko ote du gaitasun handiko ikaslea?

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Acereda, A (2010). *Niños superdotados*. Ediciones Pirámide: Madrid.
- Adam, E., Cela, J., Codina, M. T., Darder, P., Díez de Ulzurrun, A., Fuentes, M., . . . Traveset, M. (2013). *Emociones y educación: qué son y cómo intervenir desde la escuela*. Barcelona: Graó
- Aretxaga, L (2013). *Orientaciones educativas. Alumnado con altas capacidades intelectuales*. Departamento de Educación, Política, Lingüística y Cultura, Gobierno Vasco.
- Aron, A. eta Aron, E. (1997). Sensory-Processing Sensitivity and Its Relation to Introversión and Emotionality. *Journal of Personality and Social Psychology*, 73(2), 345-368.
- Balart, M.J. (2013). La empatía: La clave para conectar con los demás. *Claves del poder personal. Observatorio de recursos humanos y laborales*. Hemendik berreskuratua: http://www.gref.org/nuevo/articulos/art_250513.pdf
- Bellever, I. (2013). *Niños y niñas con altas capacidades intelectuales. Pautas para padres y madres*. Madrid: CEAPA. Hemendik heberreskuratua: <http://sinlimites.altacapacidad.net/wp-content/uploads/2016/06/Blog-Ni%C3%B1os-y-Ni%C3%B1as-con-Altas-Capacidades-Intelectuales-CEAPA.pdf>
- Berritzegunea (datarik gabe). Hezkuntza Premia Bereziak [Web-orria]. Hemendik berreskuratua: [Hezkuntza Premia Bereziak - B09 GUNE DIGITALA \(google.com\)](http://www.gune.org/Hezkuntza-Premia-Bereziak-B09-GUNE-DIGITALA)
- Calero, M; García, M; eta Gómez, M. (2007). *El alumnado con sobredotación intelectual. Conceptualización, evaluación y respuesta educativa*. Sevilla: Consejería de Educación de la Junta de Andalucía.
- Carmona, O. [Aprendemos Juntos]. (2021eko urtarrilak 25). *CV. Completa. Mitos y verdades sobre los hijos con altas capacidades* [Bideo fitxategia]. Hemendik berreskuratua: [V. Completa. Mitos y verdades sobre los hijos con altas capacidades. Olga Carmona, psicóloga - YouTube](https://www.youtube.com/watch?v=...)
- Castelló, A. eta Batlle, C. (1998). *Aspectos teóricos e instrumentales en la identificación del alumno superdotado y talentoso. Faisca: revista de altas capacidades*, 6, 26-66.
- Castro, M (2008). Niños de altas capacidades intelectuales: ¿Niños en riesgo social? *Educación y futuro*, 18.
- Chan, D. W. (2003). Dimensions of emotional intelligence and their relationships with social coping among gifted adolescents in Hong Kong. *Journal of youth and Adolescence*, 32 (6), 409-418.

- Covey, S. (2019). *Los Siete Hábitos de la Gente Altamente Efectiva - Stephen Covey (Conferencia)* [Bideo fitxategia]. Hemendik berreskuratua: [Los Siete Hábitos de la Gente Altamente Efectiva - Stephen Covey \(Conferencia\) - Bing video](#)
- Croft, L. (2003). Teachers of the Gifted: Gifted Teachers. En Nicholas Colan - gelo & Gary A. Davis (eds.). *Handbook of Gifted Education*, 558-571. Boston: Allyn & Bacon.
- Cross, T. L. (2011). *On the social and emotional lives of gifted children*. Waco: Prufrock Press.
- Davis, M. H. (1980). A Multidimensional Approach to Individual Differences in Empathy. *JSAS Catalog of Selected Documents in Psychology*, 10, 85.
- Davis, M. H. (1983). Measuring individual differences in empathy: Evidence for a multidimensional approach. *Journal of Personality and Social Psychology*, 44 (1), 113-126.
- Davis, M. H. (1983). The effects of dispositional empathy on emotional reactions and helping: A multidimensional approach. *Journal of Personality*, 51 (2), 167–184
- EIBZko liburutegia (2014). Josep Renzulli: «Umeei galdera asko egiteko aukera eman behar diegu» [Blogeko mezua]. Hemendik berreskuratua: [Josep Renzulli: «Umeei galdera asko egiteko aukera eman behar diegu» | EIBZko liburutegia \(navarra.es\)](#)
- Elices, J. A., Palazuelo, M. eta del Caño, M. (2006). El profesor, identificador de necesidades educativas asociadas a alta capacidad intelectual. *Faisca: revista de altas capacidades*, 11 (13), 23-47.
- eMS. (2021). Altas Capacidades [Blogeko mezua]. Hemendik berreskuratua: [Altas Capacidades - El Mundo del Superdotado](#)
- Eusko Jaurlaritzak (1995). Goi-mailako ikas-gaitasunak dituzten ikasleen hezkuntza. Hemendik berreskuratua: [Microsoft Word - DIVUEK2.DOC \(berrigasteiz.com\)](#)
- Eusko Jaurlaritzak (2013). Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak. Hemendik berreskuratua: [Microsoft Word - 100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.doc \(eimakatalogoa.eus\)](#)
- Eusko Jaurlaritzak (2019-2020). Jarduketa eta estrategia metodologiko inklusiboak. Hemendik berreskuratua: [Actuaciones y estrategias inclusivas E.pdf \(euskadi.eus\)](#)
- Fariña, A. (2015). Empatía: Significado y tipos de empatía [Blogeko mezua]. Hemendik berreskuratua: [Empatía : Significado y tipos de empatía – Alejandro Fariña – L de Liderazgo \(xn--alejandrofaria-2nb.com\)](#)

Feldhusen, J. F. (1985). Del Editor. *Gifted Child Quarterly*, 29(2), 51–51. doi: [10.1177/001698628502900201](https://doi.org/10.1177/001698628502900201)

Fernández, M (2015). *Conceptualización y términos afines. Manual shining de atención a las altas capacidades intelectuales*, en Infante, E. (Coord.). Sevilla: Aconcagua Libros.

Fernández-Pinto, I., López-Pérez, B. eta Márquez, M. (2008). Empatía: Medidas, teorías Y aplicaciones en revisión. *Revista Anales de Psicología*, 24 (2), 284-298.

Gagné F. (2005). From gifts to talents. The DMGT as a developmental model. En Sternberg, R.J y Davidson, J.E. (eds.) *Conceptions of giftedness*, 98-120.. New York: Cambridge University Press.

Gardner, H. (1983). *Estructuras de la mente: la teoría de las inteligencias múltiples*. Hemendik berreskuratua: [Estructuras de la mente: La teoría de las inteligencias múltiples - Howard Gardner - Google Libros](#)

Gómez, Y. (2021). Atribución disposicional y situacional [Blogeko mezua]. Hemendik berreskuratua: [Atribución disposicional y situacional | Psic.Social \(wordpress.com\)](#)

Guilford, J. P. (1967). *The nature of human intelligence*. New York: McGraw–Hill.

Hernández, I. (2017). Superdotados, la dificultad de identificar a los alumnos especiales. *El Mundo*. Hemendik berreskuratua: [Superdotados, la dificultad de identificar a los alumnos especiales | Sociedad Home | EL MUNDO](#)

Hezkuntza Premiak (datarik gabe). Adimen Gaitasun Handia [Blogeko mezua]. Hemendik berreskuratua: [Adimen gaitasun handia | HEZKUNTZA PREMIAK \(wordpress.com\)](#)

IES Julio Caro Baroja BHI (datarik gabe). Hezkuntza premia bereziak. Bizkaia [Web-orria]. Hemendik berreskuratua: [Hezkuntza premia bereziak](#)

Lehen Urratsak, (2018). First Steps Study: Interaction and Learning within the Child-Parent-Teacher Triangle. Jyväskylä, Finlandia. [Web-orria]. Hemendik berreskuratua: [First Steps Study: Interaction and Learning within the Child-Parent-Teacher Triangle — Faculty of Education and Psychology \(jyu.fi\)](#)

Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa (LOMCE), [Ley Orgánica 8/2013, de 9 diciembre]. *Boletín Oficial del Estado*, nº 295, 2013ko abenduaren 10ean argitaratua.

- Llata, M. (2015). *Altas capacidades en nuestro sistema educativo*. Sevilla: Punto Rojo Libros.
- Menéndez, S. (2021). Estudio de Alta Sensibilidad en niños de Altas Capacidades [Web-orria]. Hemendik berreskuratua: [Estudio de Alta Sensibilidad en niños de Altas Capacidades – Centro Ayalga](#)
- Monjas, M. I. (Dir). (2011). *Cómo promover la convivencia: Programa de Asertividad y Habilidades Sociales (PAHS). Educación Infantil, Primaria y Secundaria* (3 ed.). Madrid: Cepe.
- Montaner, J. (2007). Empatía [Web-orria]. Hemendik berreskuratua: [Empatía | Consumer](#)
- Moreno, M. (2019). La importancia de la empatía en la profesión docente [Web-orria]. Hemendik berreskuratua: [La importancia de la empatía en la profesión docente \(educaciontrespuntocero.com\)](#)
- Mújica, R. (2015). La Empatía en la Docencia [Blogeko mezua]. Hemendik berreskuratua: [LA EMPATÍA EN LA DOCENCIA. - Docentes 2.0 \(docentes20.com\)](#)
- Parker, J. (1996). NAGC [National Association for Gifted Children] Standards for Personnel Preparation in Gifted Education: A Brief History. *Gifted Child Quarterly*, 40 (3), 158-164.
- Pérez, Luz F. (2006). *Alumnos con capacidad superior. Experiencias en intervención educativa*. Madrid: Editorial Síntesis.
- Pfeiffer, S.I. (2012). Current Perspectives on the Identification and Assessment of Gifted Students. *Journal of Psychoeducational Assessment*, 30(1), 3-9. [doi:10.1177/0734282911428192](https://doi.org/10.1177/0734282911428192)
- Piaget, J. (1952) *The Origins of Intelligence in Children*. International Universities Press, New York. Hemendik berreskuratua: <http://dx.doi.org/10.1037/11494-000>
- Pujol, G (2005). De la preocupación por el otro a sentirse parte de la humanidad. Identidad y valores en la educación. *Revista Iberoamericana de Educación*. 36: 6, 1-11
- Real Academia Española (2020). Empatía. Hemendik berreskuratua: [empatía | Definición | Diccionario de la lengua española | RAE - ASALE](#)
- Renzulli, J. (1977). *The enrichment triad model: a guide for developing defensible programs for the gifted and talented*. Mansfield Center, CT: Creative Learning Press.
- Riquelme, E.; Munita, F.; Jara, E.; eta Montero, I. (2013). Reconocimiento facial de emociones y desarrollo de la empatía mediante la Lectura Mediada de literatura infantil. *C&E. Cultura y educación*, 25 (3), 375-388.

Rodríguez H. (2015). Caso clínico: relación entre el nivel de autoestima y el desarrollo infantil del niño. *TOG*, 12 (22).

Rogers, C.R. (1957). The necessary and sufficient conditions of therapeutic personality change. *Journal of Counselling Psychology*, 21, 95-103.

Rogers, C.R. (1975). Empathic: An unappreciated way of being. *The Counseling Psychologist*, 5, 2-10.

Sánchez, R. (2019-2020). La colaboración de la familia y la escuela en la promoción de la motivación hacia el aprendizaje de los niños con altas capacidades intelectuales. Hemendik berreskuratua: <http://repositorio.ual.es/bitstream/handle/10835/10300/SANCHEZ%20GUZMAN%2c%20RAQUEL.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Sastre-Riba, S. y Fonseca-Pedrero, E. (2019). Perfeccionismo y alta capacidad intelectual. *Medicina*, 33-37.

Sastre-Riba, S. y Pascual-Sufrate, M. (2013). Alta capacidad intelectual, resolución de problemas y creatividad. *Revista de Neurología* (56), 67-76.

Siaud-Facchin, J. (2014). *Demasiado inteligente para ser feliz*. Barcelona: Paidós.

Silverman, L. K. (1993). *Counseling the gifted and talented*. Denver: Love Publishing.

Sternberg, R. J. (1985). *Beyond IQ: A Triarchic Theory of Intelligence*. Cambridge: Cambridge University Press.

Sternberg, R. J., & Zhang, L. (1995). What Do We Mean by Giftedness? A Pentagonal Implicit Theory. *Gifted Child Quarterly*, 39(2), 88–94. [doi:10.1177/001698629503900205](https://doi.org/10.1177/001698629503900205)

Subotnik, R. F., Olszewski-Kubilius, P. y Worrell, F. C. (2011). Rethinking Giftedness and Gifted Education: A Proposed Direction Forward Based on Psychological Science. *Psychological Science*, 12(1), 3-54. [doi:10.1177/1529100611418056](https://doi.org/10.1177/1529100611418056)

Tirri, K. (2008). Who Should Teach Gifted Students? *Pedagogiaren aldizkari Espainola*, 66 (240), 315-324.

Tourón, J. (2016). Mitología de la alta capacidad. *Ined21*. Hemendik berreskuratua: <http://ined21.com/mitologia-de-la-alta-capacidad/>

Vaello Orts, J. (2011). *Cómo dar clase a los que no quieren*. Barcelona: Graó.

8. ERANSKINAK

1. Eranskina: Ad-HOC galdetegi kualitatiboa

1. Adina.
2. Generoa.
3. Lanbidea.
4. Lan egiten duzun hezkuntza maila.
5. Lan egiten duzun hezkuntza zentroa.
6. Zenbat urte daramatzazu hezkuntza munduan lanean?
7. Zein maila akademiko lortu duzu? Gradua, masterra, doktoretza...
8. Adimen Gaitasun Handien inguruko ezagutza maila.
9. Jaso al duzu Adimen Gaitasun Handien inguruko formaziorik?
10. Adimen Gaitasun Handiko pertsonekin izandako harreman maila.
11. Adimen Gaitasun Handiko pertsona bezala diagnostikatuta al zaude?
12. Ikaslego honi zuzendutako hezkuntza programa berezirik egon beharko litzateke?
13. Lan egiten duzun zentroan ezagutzen al duzu ikasle hauei zuzendutako protokolo edo planik?
14. Adimen Gaitasun Handiko ikasleek hezkuntza berezi bat izan beharko luketela uste al duzu?
15. Adimen Gaitasun Handiko ikaslegoari zuzendutako harrera plana ezagutzen al duzu?

2. Eranskina: IRI galdetegi kualitatiboa

1. Erregularitasun pixka batekin, esna amesten dut gertatu ahal zaizkidan gauzekin.
2. Sarritan, errukia eta kezka sentimenduak ditut zoriogaitzeko jendearekiko.
3. Batzuetan, zaila egiten zait gauzak besteen ikuspuntutik ikustea.
4. Normalean, ez dut penarik sentitzen gainontzekoek arazoak dituztenean.
5. Benetan sartuta sentitzen naiz eleberri bateko pertsonaien sentimenduekin.
6. Larrialdi egoeretan beldurra eta gaixotzeko zorian sentitzen naiz.
7. Orokorrean, objektiboa naiz filma bat edo antzerki emanaldi bat ikusten dudanean eta normalean, ez naiz erabat murgilduta sentitzen haietan.
8. Erabaki bat hartu aurretik denen jarrera kontenplazten saiatzen naiz.
9. Norbaitetaz baliatzen ari direnean, haren babesle adierazteko beharra sentitzen dut.
10. Batzuetan, babesgabe sentitzen naiz karga emozional askodun egoeretan.
11. Batzuetan, lagunak hobeto ulertzen saiatzen naiz gauzak beraien ikuspuntutik nola izan behar duten imajinatuz.
12. Liburu edo film on batean nire burua erabat sartuta sentitzea oso arraroa da niretzat.
13. Norbait minduta dagoela ikustean, normalean baretasunean mantentzen naiz.
14. Beste pertsona batzuen ezbeharrek ez naute gehiegi asaldatzen.
15. Zerbaitetaz erabat ziur banago, normalean ez dut denbora gehiegi galtzen besteen argudioak entzuten.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

16. Antzerki emanaldi bat edo pelikula bat ikusi ondoren pertsonaietako bat banintz bezala sentitzen naiz.
17. Beldurra ematen dit tentsiozko egoera emozional batean aurkitzeak.
18. Batzuetan, ez dut lastima askorik sentitzen pertsona bat bidegabekeriaz tratatzen dutela ikustean.
19. Normalean, nahiko eraginkorra naiz larrialdi egoerei aurre egiteko.
20. Sarritan, inguruan gertatzen dena ikustean kaltetuta sentitzen naiz.
21. Egoera bakoitzak bi aurpegi dituela uste dudanez, biak aztertzen saiatzen naiz.
22. Bihotz oneko pertsona bat bezala deskribatuko nuke nire burua.
23. Pelikula on bat ikusten dudanean, erraz jartzen naiz pertsonaia nagusiaren lekuan.
24. Maiz, kontrola galtzen dut larrialdi egoeretan.
25. Norbaitek haserretzen nauenean, une batez bere larruan jartzen saiatzen naiz.
26. Ipuin edo eleberri batean istorio interesgarri bat irakurtzen dudanean, istorioko gertaerak niri gertatuz gero, nola sentituko nintzatekeen imajinatzen saiatzen naiz.
27. Larrialdi egoera batean norbaitek premiazko laguntza behar duela ikusten dudanean, urduritasunak eragindako krisi baten zorian sentitzen naiz.
28. Norbait kritikatu aurretik bere lekuan jartzen naiz eta ni egoera horretan nola sentituko nintzatekeen imajinatzen saiatzen naiz.

3. Eranskina: Gaitasun Handiko gazte bati egindako elkarrizketa

Nola definituko zenituzke Gaitasun Handiak? Zuretzat zer esan nahi du Gaitasun Handiak edukitzeak?

Niretzat gaitasun handiak dituen pertsona bat adimen bizkorra duena edo komunki talentu aparteko pertsonatzat jotzen dena da.

Gaitasun handiak edukitzea da guztiarekiko ikuspuntu berezia izatea, ezerekin inoiz ez konformatzea eta beti norbera gainditzen saiatzea.

Nola jakin zenuen Gaitasun Handiak zenituela? Norbaitek honen berri eman aurretik, nabaritzen al zenuen zerbait zuregan?

Nire burua gaitasun handia duen pertsonatzat jotzen ez dudan arren, oso zuhurra, detailezalea eta perfekzionista naizela esango nuke.

Zure uste apalean, zer da besteengandik bereizten zaituena? Zer da zugandik nabarmenduko zenukeena? (sormena, oroimena, enpatia...)

Galdera zaila da. Ez naiz gehiengoarekiko ezberdina sentitzen, baina nigandik zerbait nabarmentzekotan agian gaitasun enpatikoa eta xehetasun txikien behaketarako dudan gaitasun handia lirateke.

Dena den, nire lanbidea eta nortasuna direla medio, oso sortzailea izan behar dut, jada nire kabuz naizena. Gainera, nire oroimen selektiboaren eraginez, xehetasun batzuk bikain oroitzeko gai naiz, baina beste batzuk, ordea, minutura ahazten zaizkit.

Inoiz pentsatu al duzu “nire burua hain azkar ez joatea gustatuko litzaidake”?

Ez dut sekula pentsatu, naizen bezalakoa izatea gustatzen zait.

Baliteke batzuetan Gaitasun Handiak izateak bere alde onak eta ez hain onak edukitzea? Zeintzuk?

Hori pertsonaren araberakoa dela esango nuke. Gaitasun sozialei dagokienez, gaitasun handiak dituen pertsona bat guztiz integratua egon daiteke talde batean, baina

orokorrean ez da horrela. Izan ere, gaitasun sozialak askorentzat eragozpenak bilakatzen dira pertsonaren isolamendua eraginez eta bakardade hau norberak edo taldeak hautatutakoa izan daiteke. Hala, pertsona batek bere gaitasuna kideena baino altuagoa dela pentsatu dezake eta ondorioz, pertsonalki isolatzen da. Aitzitik, pertsona berak guztiz ezberdina den izaera batekin taldean egoteko nahia sentitu dezake eta oraingoan, taldea izan daiteke bere gaitasunengatik baztertzea erabakitzen duena.

Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa eskolan? Uste duzu irakaslegoa zure beharriaz erantzun egokia emateko gai zela?

Nire eskola garaiko haurtzaroko zenbait momentu maitasun askorekin oroitzen ditut, baina orokorrean, ez denak. Izan ere, une txarrak ere bizi izan ditut.

Irakaslegoari dagokionez, nire premiei erantzuteko gai zen, nahiz eta bazegoen nor edo nor ez ikusiarena egiten zuena. Baina hori iragana da.

Zer bota zenuen faltan irakaslegoaren aldetik? Ba al dago onerako edo txarrerako aztarna utzi zizun zerbait?

Irakasleen aldetik adibide grafikoak bota nituen faltan, dena baitzen teoria hutsa. Ondorioz, guztia buruz ikasi beharra genuen eta dena errazagoa izango zen praktikotasuna bilatzen zuten adibideak egiten baziren.

Oro har, erretiroa hartzeaz zegoen irakasle batek aztarna utzi zidan nire batxilergoko azken urtean. Irakasle honek matematikako eta fisikako klaseak ematen zizkidan eta oso zorrotza zen. Irakasleak denetarik deitzen zigun (astakirtenak, ganorabakoak, ergelak...) eta batzuetan belarrondokoren bat erortzen zitzaigun. Baina orokorrean, eduki dugun irakaslerik onena izan da, beti baitzegoen edozertan laguntzeko prest eta zailtasunak zituzten ikasle batzuen kasuan, eskolaz kanpo saioak ematen zizkien arazoa-egoerak ulertzeko eta gainditzeko laguntzeko.

Zure aburuz, irakaslegoak Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntza falta al du? Ba ote dago hezkuntzatik edota gizartetik aldatuko zenukeen zerbait?

Ez daukat argi irakaslegoak Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntza falta duen ala ez, galdera hau irakasleei egin beharko litzaieke.

Aurreko galderan esan bezala, hezkuntzan praktikotasuna bilatuko nuke, gutxienez nire garaian dena teoria bidez ikastea oinarritzen baitzen, oso adibide edo eredu praktikoa gutxi zeudelako. Honelako egoerak astunak eta aspergarriak bilakatzen direnez, ikasleek ikasgai horiekiko interesa eta motibazioa galtzen dute, ondorio larriak ekarriz.

Enpatia oinarrizko balore sozialetako bat da. Zure eskola garaiko bizipenetan oinarrituz, irakaslearen enpatia Gaitasun Handiko ikasleekiko garrantzitsua dela uste duzu? Nola eragin dezake enpatia honek? Zer gerta daiteke irakasleak ez badu enpatiarik?

Nire uste apalean, irakaslearen enpatia garrantzitsua da bere neurrian, baita pertsonaren arabera ere. Izan ere, pertsona bakoitza mundu bat da eta ez da erraza guztiei berdin tratatzea. Beraz, funtsezkoa da irakasle eta ikasleen arteko harremana elkarrekiko enpatian oinarritzea.

Nolanahi ere, irakasleak larregiko enpatia izanez gero, gerta daiteke ikasleak modu ezkorrean erantzutea eta honekin batera, elkarrekiko konfiantza galtzea. Antzerakoa gerta daiteke irakasleak enpatiarik erakusten ez duenean. Nire bizipenetan oinarrituz, enpatiarik gabeko irakasleen klaseetan egotea oso desatsegina izan zen eta klase haietan nahi nuen bakarria ordua azkar igarotzea zen, hots, arreta jarri beharrean, klasea ahalik eta azkarren amaitzea. Funtsean, nahiago izaten nuen ikasgai hura nire kabuz eskolatik kanpo ikastea.

Etorkizuneko irakasle izango naizen bezala, zein gomendio emango zenidake?

Honako gomendioak emango nizkizuke:

- Ikasle bakoitza mundu bat dela ulertzea eta oso zaila dela guztiei berdin tratatzea.
- Pazientzia handia izatea eta inoiz ez itxaropena galtzea, are gutxiago hasierako urteetan.
- Praktikotasunean oinarritutako ariketak eta adibideak ematea, ez soilik teoria hutsa.
- Klaseko monotonia zaintzea, gerta daitekeen okerrean baita.

4. Eranskina: Gaitasun Handiko gazte bati eta bere amari egindako elkarrizketa

Familiari (amari) zuzendutako galdarak:

Noiz eta nola jakin zenuten semeak Adimen Gaitasun Handiak zituela? Noiz eta nola eman zenioten honen berri zuen semeari?

Betidanik jakin dugu. Urtebete zuenetik genekien ez zela bere adinekoen bezalakoa. Era berean, lau urterekin semeak bazekien gaitasun handiak zituela eta bere kabuz ohartzen zen ez zela gainontzekoen bezalakoa.

Beraz, zortzi urterekin terapiari hasi zen hamairu urte bete zituen arte, eta tarte horretan, hamaika urterekin psikopedagogo espezializatuarenera eraman genuen probak egiteko. Porba hauek 4-5 ordu bitartean iraun zuten eta jada genekiena baieztatu ziguten: semeak gaitasun handiak zituela. Honi esker, Aupatuz eta Alcagi elkarteetan sartu ginen.

Zerk eraman zintuzten erabaki hori hartzera? Zerbait somatu zenioten semeari? Zer?

Urtebeterekin asko hitz egiten zuen eta bi urterekin matematikako eragiketak sukaldeko mahai azpian egiten zituen. Hori gutxi balitz, 3-4 urterekin irakurtzeko gai izateaz gain, astrofisikaz eta fisika kuantikoaz galdetzen zuen etxean, eta eskolan ematen zutena motz gelditzen zen berarentzat, ez zen nahikoa. Gainera, eskolara bere bila joatean parkera joan beharrean etxera joan nahi zuela esaten zigun. Eta egun batean, etxera iristean negar batean zera esan zigun: ez dut ikastolara berriz joan nahi, ez dut dena jakin nahi, lagunek agobiatu egiten naute eta horrela jarraitzen badut lagunik gabe geldituko naiz... Zergatik dakit hainbeste?

Honelako jarrerengatik eta egiten zituen gauzengatik somatzen genuen gure semea ez zela bere adinekoen bezalakoa eta honexegatik erabaki genuen irtenbide bat bilatzea.

Nor izan zen berri hori eman zizuena? Nolako izan zen berarekin izandako harremana?

Semeak bost urte inguru zituenean, hainbat irakaslek esan ziguten eskolan ematen zena ez zela nahikoa berarentzat eta ikasle bezala behar bereziak zituela. Arrazoi honegatik eta guk etxean egunez-egun bizitakoagatik, mugitzen hasi ginen. Hasiera batean, gure

kabuz ekin genion informazioa bilatzeari eta gutxira, Alcagi eta Aupatuz elkarteen kide egin ginen. Hala ere, bide xamurra izan ez den arren, nahiko ongi pasa dugu, bereziki gure semeak, beste gazte askok okerrago igarotzen baitute.

Nolanahi ere, hamaika urterekin psikopedagogoan burututako probetan genekiena baino informazio gehiago eskaini ziguten. Izan ere, proba horietan gure semeak gaitasun handiak zituela baieztatzearekin batera, zenbaterainoko maila zuen zehaztu ziguten eta honen harira, pautak eman zizkiguten ikastolan jarraitzeko, baina irakasleen formakuntza falta dela medio, semearen beharrezanek ez zuten erantzun egoki bat jaso.

Zer sentitu zenuen berri hau jasotzean? Zer izan zen egin zenuen lehenengo gauza?

Psikopedagogoak honen berri ematean, semea emozionalki oso orekatua zegoela esan zigun, baina ama bezala ni nintzen desoreka emozionala neukana. Honelako egoeretan, gurasoek ere laguntza beharra somatzen dugu. Ama bezala ez nuen ongi igaro. Izan ere, semeak hamabi urte bete zituen arte ezkutuan eraman nuen nire lagunaren artean, ez nintzelako esatera ausartzen, zer pentsatuko zutenaren beldur. Nire lagunek nabaritzen zuten seme azkarra nuela, baina ez zekiten ezer gehiago.

Sentitzen nuen beldur horren arrazoia zen askotan Adimen Gaitasun Handikoek ez dutela haien burua den bezalakoa onartzen eta hori gizartearen errua da. Gizartea ez dago prest kolektibo honetako pertsoneri erantzun egokia emateko eta ondorioz, ezta eskolak eta irakasleak ere. Honen eraginez, ikasle hauen potentzialtasuna bidean galtzen da, behar bezalako etekina atera gabe.

Zure ingurukoek nola erantzun zuten honen berri izatean?

Orokorrean ez zuten egoera ulertzen. Nire semeari eskolan erantzun egokirik ematen ez ziotenez, eskolaz kanpoko ekintzetara apuntatzen nuen bere energia guztia xahutu ahal izateko eta zuen potentzialtasunari etekin handia ateratzeko. Etxean geldituz gero, aspertu egiten zen ez zuelako ezer egiteko. Baina kanpoko jendeak ez ginduen ulertzen eta semea itotzen nuela esaten zidaten. Hori gutxi balitz, behin lagun batek zera esan zidan: Zure semea gauza guztietan onena izatea nahi al duzu? Eta galdera honen aurrean zera pentsatu nuen: jakin izango bazenu benetan zergatik egiten dudan...

Ikusten duzu aldaketarik egon dela urteetan zehar gai honen inguruan? Hau da, gaur egun Adimen Gaitasun Handiko haurrei erantzun egokiagoa ematen zaiela uste duzu?

Pentsatu nahi dut baietz, baina ez nago oso ziur. Egoerak nahiko antzera jarraitzen du, hau da, ikasle batek egunean ordu asko igarotzen ditu eskolan eta teoriar bertan jaso behar dute hezkuntza-erantzun egoki bat, baina errealitatean ez da horrela irakasleak ez baitaude horretarako prest. Ondorioz, familiak behartuta ikusten dira haien semeen premiak asetzeko moduak eskolaz kanpo bilatzera eta hori etsigarria da, eskola bat ikaslearen premiei erantzuteko gai izan behar baita.

Oro har, gaitasun handiak dituzun justifikantea izanez gero, Espainian bekak ematen dira ikasle hauek nahi duten hori ikasteko (bertan edo atzerrian), baina Euskal Herrian ez da horrelakorik gertatzen.

Mito eta uste ugari daude Gaitasun Handien inguruan, baina azken batean, ez dakigu gaitasun handiak izatea abantaila edo desabantaila bat izan daitekeen... zer deritzozu?

Akats handietako bat adimen kognitibo handia dutenez, laguntzarik behar ez dutela pentsatzea da, baina adimen kognitiboa ez da duten gaitasun bakarra, adimen gaitasun gehiago dituzte eta horien guztien lanketa funtsezkoa da. Gainera, eskolan hainbeste urte pasatzen dituztenez, irakasleek beharizan horiei guztiei erantzuten jakin behar diete eta inoiz ez ikasleari hegoak mozten.

Horren harira, ez daude bi ikasle berdin, gaitasun handikoak oso ezberdinak baitira euren artean eta edozein gizaki bezala, bakoitza trebea da gauza batean. Hortaz, ezin dira ikasle guztiak saku berean sartu.

Irakasleek nolako feedback-a ematen zizuten semeak Gaitasun Handiak zituela baieztatu aurretik? Klasean arreta falta zuela, alperre zela, dena erantzun nahi zuela...

Hori da, bai. Askotan semeak arreta falta zuela leporatzen zidaten, bere munduan zegoela eta nagia zela esanez.

Zer iruditzen zaizu bestelako kasu askorentzat protokolo ugari egotea eta kolektibo honentzat ez? “Azkarrak direnez irtengo dira aurrera...” esan ohi da... Baina porrot eskolar handia dago haien artean eta honek eragina du haiengan, bereziki autoestimuan, ezta?

Bai, hala da. Legeak dio gaitasun handiko ikasleak Hezkuntza-Premia Bereziak dituzten ikasleak direla eta borroka askoren ostean, gure kasuan, Eusko Jaurlaritzatik baimen bat lortu genuen semeari ikastetxean curriculum-egokitzapena egiteko.

Honi esker, semeak laguntza hurbilagoa izan du urte hauetan zehar, baina gehienetan ez da horrela izaten eta irakasleek gaitasun handien inguruan erakusten duten ezagutza faltagatik ikasle hauek ez dira identifikatuak. Ondorioz, ikasle hauen beharrezanek ez dute erantzun egokia jasotzen, desmotibazioan eta porrot akademikoan eroriz.

Aurretik aipatutakoa aintzat hartuz, uste duzu zerbait aldatu beharko litzatekeela? Zergatik?

Gaur egun dagoen eredu didaktikoa aldatuko nuke zalantzarik gabe. Semeak ez daki ikasten bere burua beste era batera doalako eta ez diote irakatsi nola erabili. Izan ere, buru pribilegiatua dauka, baina ez da honi etekina ateratzeko gai. Egoera honen aurrean, ikastetxearen hutsuneari aurre egiteko, etxean egin dugu honen lanketa, baina oraindik lan asko dago aurretik.

Semeari zuzendutako galderak:

Definitu gaitasun handiak hiru hitzetan. Zer suposatzen du gaitasun handiak izateak? Eragina dauka zure izaeran?

Konplikatua da hitz gutxitan definitzea. Gaitasun handiak edukitzeak beste ikaskuntza modu bat izatea suposatzen du, baina ez denek berdina, hots, bakoitzak berea. Beraz, gaitasun handiko pertsonen beraien moduan ikasten utzi behar zaie eta ingurukoek (familiak, irakasleek, lagunek...) eskubide hori errespetatu, ulertu eta bide horretan lagundu behar diete.

Nola jakin zenuen gaitasun handiak zenituela? Inork zuri horren berri eman aurretik, nabaritzen al zenuen zerbait zuregan?

Txikitatik ikusten nuen ez nintzela nire adinekoen bezalakoa, bestelako gaitasunak, interesak, ezaugarriak (emozionalak, kognitiboak, sozialak...) nituelako eta nire adinekoak baino goizago heltzeaz gain, trebeziak bizkorrago garatzen nituelako. Gainera, guztiari arrazoa bilatzen nion, askotan gurasoek nik egindako galdera konplexuei erantzuteko zailtasunak izanik.

Nola sentitzen zara zure buruarekin? Pentsatu izan duzu inoiz “gustatuko litzaidake burua hain azkar ez joatea”?

Kostatu zait nire burua den bezalakoa onartzea, zehazki 12 urte, baina erabaki hau ez da izan nahi nuelako, onartu beharra nuelako baizik. Izan ere, askotan nahiago izango nuke burua hain azkar ez joatea. Horrexegatik, galdetuko bazenidan ea gaur egun gaitasun handiak izatea gustatuko litzaidakeen, ezetza erantzungo nizuke.

Zure ustez, zer da besteengandik gehien bereziten zaituena? Zer da zugandik nabarmenduko zenukeena? (Sormena, memoria, empatia...).

Izugarrizko jakin-mina daukat guztiarekiko, baina gehien nabarmenduko nukeena nire adimen logiko-matematikoa da. Oso trebea naiz buruzko kalkuluan eta datu bezala esan dezaket Espainia eta Portugal mailan izan zen txapelketa batean oso ongi gelditu nintzela.

Dena den, aipatzekoa da gaitasun handiko pertsonak oso sentiberak eta empatikoak garenez, ezin ditugula bidegabekeriak jasan.

Zerbait gustuko duzunean, asko zentratzen zara horretan? Eta gustatzen ez bazaizu, zenbaterainoko interesa jartzen diozu?

Gustuko zerbait denean, interesa jartzen diot eta asko zentratzen naiz bere horretan. Aitzitik, zerbait gustatzen ez bazait, ezinezkoa da ideia hori nire burutik kentzea eta erabateko interesa galtzen dut horrekiko.

Zure ustez gaitasun handiak izateak alde onak eta txarrak ditu? Zeintzuk?

Alde txarrak alde onak baino gehiago direla esango nuke. Izan ere, abantaila bakarria erraztasun akademikoa da eta desabantailak hamaika, baina pisutsuena askotan adimen gaitasun handi honek zoriontasuna bilatzeko zailtasunak ematen dituela da. Zoriontasun honen atzetik porrot akademikoa dago, baita presio soziala, familiarra eta norberaren exijentziak eragindako arazo emozionalak, frustrazioak eta antsietate bortitza eukitzeko aukerak ere.

Alderdi sozialari dagokionez, nola sentitzen zara harremantzerako garaian? Arazoak izan edo izaten dituzu?

Zorionez lagun asko ditut eta txikitik arazoak izan arren, gaur egun ez dut inolako zailtasunik jendearekin harremantzeko, baina nire kasua ez da oso ohikoa. Izan ere, orokorrean gaitasun handiko pertsonak barnerakoiak dira eta gaitasun soziala ez dute oso garatua izaten.

Uste duzu ingurukoak enpatikoak direla zurekin? Eta zu haiekin? Besteen lekuan jartzeko gai zara?

Esan bezala, oso sentiberak eta enpatikoak garenez, ezin ditugu bidegabekeriak jasan eta zerbait gaizki dagoela ikustean, laguntzeko beharra sentitzen dugu. Baina alderantzizko kasuan jarriz gero, gizarteak ulertzen ez gaituela esango nuke. Askotan ez naiz ulertua sentitzen, batez ere arlo akademikoan. Izan ere, hamaika bider esan didate nire talentua alferrik galtzen dudala eta beti hamarrak atera beharko nituzkeela. Baina ez dira ohartzen agian nire notak motibazioari lotuta doazela. Hau da, zerbaitekiko motibazioa izanez gero, gogotsu ekiten diot bere horretan eta oso nota ona ateratzeko gai izaten naiz, inolako esfortzurik gabe. Baina alderantziz bada eta motibaziorik ez badut, ez diot gogorik jartzen zereginari eta nota baxua atera dezaket.

Nolako harremana izan duzu irakasleekin eta ikaskideekin? Bakardadea sentitu al duzu noizbait?

Bakardadea bere osotasunean inoiz sentitu ez dudala esatera ausartuko nintzateke, baina askotan ez naiz ulertua sentitzen. Lagunei dagokienez, asko ditut eta honi esker, ez naiz inoiz bakarrik sentitu. Baina egia da hamaika urterekin arazoak eduki nituela, haiekiko

desberdina ikusten nintzelako eta erabat aspertzen nintzelako, bereziki futboleko liskarrak sortzen zirenean.

Ikastolako esperientzia batean oinarrituz, matematikako irakasle batek utzitako aztarnaren inguruan hitz egingo dut: nik guztiari arrazoia bilatu nahi nionez, galderak egiten nituen dena ulertu arte eta irakasleak ez zidan galderak plazaratzen uzten. Behin, arkatza bi aldiz erori zitzaidan lurrera eta “nazkagarri” deitu zidan, hamar urte soilik nituelarik. Begi bistakoa zen irakasle honek ezin ninduela ikusi, askotan berak baino gehiago nekiela erakusten nuelako klasean eta hori ez zitzaion gustatzen. Irakasleak ezin zuen onartu ni bere azalpenak ezeztatzeko gai izatea eta lagundu beharrian, isilarazi egiten ninduen. Ondorioz, mailaz igarotzean, galderarik ez egiten ikasi nuen eta irakasleek gurasoei egoeraren berri eman zieten.

Honekin esan nahi dudana zera da, honelako irakasle eta pertsonen jarreraren eraginez, askok ezkutuan eramaten dute gaitasun hau, baita gelako sasijakintsua izatearen beldurratik ere. Ondorioz, antsietatea, estresa, porrot akademikoa... sortzen da ikaslearen.

Mito eta uste asko daude gaitasun handien inguruan. Zer deritzozu?

Nire amak esan bezala, legeak dio gaitasun handiko ikasleok hezkuntza-premia bereziak ditugun ikasleak garela eta ondorioz, beste askok bezala gelan laguntza bat edukitzeko eskubidea dugula. Tamalez, errealitatean ez da horrela izaten eta indarrean dagoen eredu didaktikoak ez du inolako laguntzarik ematen.

Zure esperientzian oinarrituz, uste duzu zerbait aldatu beharko litzatekeela hezkuntzan edo gizartean? Zergatik?

Nire aburuz, irakasleek Adimen Gaitasun Handien inguruko ezagutza gehiago eduki beharko lukete eta horretarako irtenbidea formakuntzak dira. Formakuntzarik ez badago, irakasleak ez dira kolektibo honetako ikasleak eta haien beharrianak identifikatzeko gai izango eta ondorioz, ez zaie erantzun egoki bat emango, porrot akademikoan erortzeko aukerak areagotuz.

5. Eranskina: ALCAGI elkarteari egindako elkarrizketa

Zer da Adimen Gaitasun Handiak izatea?

Gaitasun handiak izatea garun-konfigurazio ezberdina edukitzea da, hots, zuhaizkara itxurako garun-interkonexio gehiago izatea, ez neurona gehiago. Honi esker, garunak askoz azkarrago funtzionatzen du.

Jeanne Siaud-Facchin psikoterapeutak bere *Demasiado inteligente para ser feliz* (2014) liburuan dio gaitasun handiak edukitzea adimentsua eta bizkorra izateko modu bat dela, adimenak lan egiteko duen ezohizko modu bat, alegia. Era berean, baliabie kognitiboen aktibazioa da, non garun oinarriak ezberdinak diren eta antolaketak ustekabeko berezitasunak erakusten dituen.

Zeintzuk dira gaitasun handiko ikasleen ezaugarri nabarienak? Ezaugarri berdinak izaten dituzte neskek eta mutilek?

Kolektibo heterogeneoa izan arren, guztiek dituzte ezaugarri komunak, gainontzeko pertsonekin gertatzen den bezala, bakoitza mundu bat baita.

Adimen Gaitasun Handiekin jaio egiten da ala bilakatu?

Jaiotzen diren momentutik dituzte gaitasun handiak, baina gakoa horien potentzialtasunari etekina ateratzen jakitean dago. Izan ere, gaitasun horiek ez badira lantzen, ez dira sekula garatuko eta ondorioz, ezta talentu bilakatuko ere. Hori dela medio, potentzialtasuna bidean galduko da inolako etekinik atera gabe.

Nola jakin edo antzeman daiteke norbaitek Adimen Gaitasun Handiak dituela?

Gaur egun, irakaslegoaren aldetik egon daitekeen formakuntzari esker susmatu daiteke ikasle batek gaitasun handiak dituela eta hori baieztatzeko honako testak erabiltzen dira: Wisc V, Sormenaren testa eta Gaitasunen testa.

Noiz da garai egokiena Adimen Gaitasun Handiko proba egiteko?

Ikasleak ez badu inolako arazorik eskolan, gaitasun handiko proba burutzeko garai egokiena 6-7 urterekin da. Posible da lehenago egitea, baina ez da gomendatzen emaitzek goiztiartasuna eman dezaketelako eta aurrerago proba berriz errepikatu beharko delako.

Beharrezkoa da umei probaren berri ematea eta haren helburua azaltzea? Eta proban baiezkota emanaz gero, komenigarria da umeak jakinaren gainean jartzea?

Bai, dena da komenigarria, baina erraztasunez eta adinera moldatuz. Gainera, onuragarria da proban egingo dutena jakitea, baita arrazoiak eta helburua ulertzea ere.

Horrez gain, emaitza baikorra izanez gero, funtsezkoa da haurrari horren berri ematea. Modu honetan, ikasleak bere burua nolakoa den ezagutzearekin batera, bere bizitza ulertuko du, baita bere izaera ere.

Zeintzuk dira Adimen Gaitasun Handiak izatearen onurak eta zailtasunak?

Onurei dagokienez, etorkizun handiko pertsonak izan daitezke, hots, gauza handiak egin ditzaketenak. Arrazoi honegatik zaindu behar da haietako bakoitzaren talentua.

Zailtasunei erreparatuz, esan beharra dago asko direla. Izan ere, gizartean ez daude ongi ikusiak eta bekaizkeria sortzen dute haien kideen artean, askotan egoera zaila jarriz.

Adimen Gaitasun Handiak dituzten haurrak desberdinak sentiarazi daitezke gainontzeko hurrekiko?

Bai, ez dira gainontzekoak bezalakoak eta hori eurek badakite, hala sentitzen baitute.

Hezkuntzara bideratuta, zein da Adimen Gaitasun Handiko haurrak dituzten familiei gehien ematen diezuen aholkua?

Familiei gehien ematen zaien gomendioa da hurrekin pazientzia edukitzea eta inoiz ez estutzea. Izan ere, gaitasun handiko pertsonak oso perfekzionistak dira haien buruarekin

eta ez da komeni exigentzia hori areagotzea, nahiko presio jasaten baitute egunero gizartearen ondorioz.

Era berean, familiek eskolarekin pazientzia edukitzea komeni da, baita irakaslearekin harreman egokia izatea ere, beti errespetuz eta jokamolde zuzenarekin jokatzuz. Honela, irakaslea laguntza eskaintzeko prest egongo da beti, gure kasuan bezala.

Nolako sentimendua edo jarrera ikusten duzue seme-alaba eta gurasoengan honelako berri bat jasotzean?

Beldurra eta ziurgabetasuna dela medio, batzuk ez dute onartu nahi izaten eta beste batzuk, ordea, haien haurra gainontzekoak baino hobea dela sinisten dute. Beraz, dena normaltasunez eta apaltasunez hartu behar da, norik bere egoa gizendu ez dezan eta ondorioz, lotsagabea bihurtu ez dadin.

Ikastetxe edota unibertsitateekin harremana duzue? Nolakoa izan ohi da?

Bai, oso harreman ona eta hurbila daukagu, bereziki formazioa eta gomendioak eskatzen dizkiguten zentroekin. Izan ere, gurasoak, seme-alabak, ikasleak eta irakasleak aholkatzen ditugu, baita interesatuta dagoen edonori formazioa eskaini ere.

Nolako papera jokutzen du ikastetxeak gaitasun handiko ikasleengan?

Ikastetxeak eguneko zenbait momentutan zeregin bereizleren bat eman beharko lieke ikasle hauek duten potentzialtasun guztia garatu ahal izateko. Aitzitik, ez bazaie behar dutena ematen, porrot akademikoa ager daiteke, baita antsietate arazoak ere, besteak beste.

Beharrezkoa izan beharko litzateke irakasleek Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntza bat jasotzea?

Oso garrantzitsua da eta derrigorrezkoa izan beharko litzateke irakasle guztiak gaitasun handien inguruan formatuta egotea. Izan ere, formazioan barneratutako ezagutzak dira ikasle hauei erantzun egoki bat emateko bide bakarra.

Irakasleek zer jakin edo egin beharko lukete haur horren beharrak asetzeko?

Behin gaia eta ikaslegoaren ezaugarriak ezagututa, badakite nola lagundu behar den. Arlo akademikoari dagokionez, gaien formatuta dagoen irakasleak badaki ikasle hauek ikasteko dituzten beharrianak asetzeko eman beharreko lan eta zeregin motak zeintzuk diren. Arlo emozionalean oinarrituz, ikasleak ezagututa badakite nola jokatu behar duten haiekin, baita psikologo baten beharra dutela somatu ere.

Zeintzuk dira Adimen Gaitasun Handien inguruan dauden mito ezagunenak? Irakasleek zein uste oker izan ditzakete?

Mito ezagunena eta zabalduena laguntzarik behar ez dutela da, baina okerra da. Ikasle hauek ez dira ikaskuntza eginarekin jaiotzen, ikaskuntza hori eskuratzeko erraztasun eta azkartasunarekin baizik.

Hala ere, beti nota onak ateratzen dituztela pentsatzen da eta askotan, ez dituzte azterketak gainditzen. Era berean, bakartiak direla esaten da eta ez da horrela. Kolektibo honetako pertsonen haien estiloko pertsonak behar dituzte ganorazko elkarriketa bat edukitzeko eta hor dago gakoa. Gainera, pertsona hotzak eta kalkulatzailerak direla uste da, baina gainontzeko pertsonak bezalakoak dira.

Ikerketarako zer nolako baliabideak dituzue? Zenbait baliabideren falta somatzen duzue?

Gizartean formazio falta dagoenez, ez dago ongi ikusia gaitasun handiak eduitzea eta ondorioz, ez dago baliabide nahikorik. Baliabide urritasun honen eraginez, bidea zailagoa bilakatzen da eta familia guztiek bezala, guk ere formazioa behar dugu aurrera egin ahal izateko. Beraz, irtenbidea baliabide eta laguntza gehiago jasotzea da. Modu honetan, gauzak zuzen egiten jakingo genuke eta gaitasun handiko pertsonen erantzun egokia emateko gai izango ginateke. Baina zoritxarrez, ez da talentua zaintzen eta hori tamalgarria da, pertsona hauek etorkizunaren zati garrantzitsu bat baitira. Izan ere, ez zaie laguntzen eta ondorioz, atzerrira joateko joera dute luzarora: "garunen ihesaldia".

Zer da benetan elkartearekin eta ikerketekin lortu nahi duzuen? Zer izango litzateke zuentzat onuragarria ongizate pertsonal zein akademikorako?

Elkarte bezala lortu nahi duguna da estamentu guztien aldetik ikasle hauen inguruan (ezaugarriak eta premiak) gehiago ikerketzea eta ezagutzea, Legeak onartzen dizkien eskubideak modu egokian bete daitezten.

Funtsean, familiek, ikasle horiek eta elkarrekin nahi duguna da gaitasun handiko pertsonak ezagutaraztea, onartzea, baloratzea, estimatzea eta haietako bakoitzaren potentzialtasuna garatzeko behar dituzten estrategiak ematea.

Zuen ustez garrantzitsua al da irakasle batek enpatia izatea? Nola eragin dezake enpatia horrek gaitasun handiko ikasleengan? Zer gerta daiteke irakasleak enpatiarik ez badu?

Ikasle guztien kasuan bezala, oso garrantzitsua da irakaslearen enpatia gaitasun handia duten ikasleekiko. Enpatiarik ez badago, tratu txarra egon daiteke alderdi emozionalean eta ondorioz, ikasleari eskolara joan nahi ez izatea eragin diezaioke, baita jazarpen kasuetan bezala bestelako minak eragin ere. Gainera, enpatia faltak ikasleak ikasgaia begitan hartzea eragin dezake eta ondorioz, ikasteari uztea, alferragoa bilakatzea, motibazioa eta interesa galtzea edota esfortzurik ez egitera bultzatzea eta azkenik, porrot akademikoan erortzea. Dena den, latzena alderdi emozionala da.

Etorkizuneko irakasle izango naizen bezala, zein gomendio emango zenidake?

Irakase bezala lanean aritzean, maitatu zure ikasle guztiak, entzun arretaz haietako bakoitzari, arduratu haien premiez eta beharrezkoa izanez gero, utzi une batez irakasteari eta erantzun beharizan horiei, garrantzitsuena baita.

6. Eranskina: AUPATUZ elkarteari egindako elkarrizketa

Zer da Adimen Gaitasun Handiak izatea?

Bere izenak dioena: adimen azkarrekoak izatea, gaitasun handia izatea, potentzial handia izatea.

Zeintzuk dira gaitasun handiko ikasleen ezaugarri nabarrienak? Ezaugarri berdinak izaten dituzte neskek eta mutilek?

Neskek ezkutatzeko joera dute, edo beharbada gizarteak ezkututzen ditu. Izan ere, neska batek eskolan emaitza onak lortzen baditu, “langilea” dela esaten da eta mutilari, ordea, “azkarra” deitzen zaio eta errealitatea bestelakoa izan daiteke. Izan ere, guztiek eduki ditzakete disinkroniak eta kitzikagaitasunak.

Horrez gain, gaitasun handia dutenek arinago eta errazago ikasten dute, hots, modu induktiboz edo ez-ohiko bidetik. Gainera, errepikapenik gabe ikasteko abilezia dute, errepikapenen beharrik izan gabe kontzeptuak lehenengoan ulertuz eta barneratuz. Hori dela eta, euren ikaskideentzat behin eta berriz kontzeptu bera landu behar badute, aspertu eta deskonektatu egiten dute.

Adimen Gaitasun Handiekin jaiotzen da ala bilakatu?

Potentzialarekin jaiotzen zara, baina potentzial hori gauzatzeko bitartekorik ez badago, ezinezkoa izango da garatzea. Arrazoi honegatik dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak. Behar horiek ezagutzen ez badira edota asetzen ez badira, potentzial hori atrofiatuko da, hots, ahalmena ez da sekula abilezia bilakatuko. Hori dela medio, EAEn Pisa bezalako probetan askoz gehiago dira oinarrizko mailan dauden ikasleak maila aurreratuan daudenak baino. Hau da, teoriarik maila aurreratua lortu dezaketen hainbat ikasleek ez dute dagokien kompetentzia garatu. Hori, gizarte eta eskolaren porrotaren erakuslea da. Funtsean, natura (herentzia) versus nurtura (interakzio soziala) ideiarik dagokionez, biak behar dira elkarlanean, ikasle hauen ahalmenaren arabera emaitzak lor ditzaten.

Nola jakin edo antzeman daiteke norbaitek Adimen Gaitasun Handiak dituela?

Askotan goiztiarrak dira, hau da, garapen ebolutiboaren etapak arinago lortzen dituzte. Ez da beti horrela, baina bai askotan eta hori da lehen zantzua eskolan. Dena den, egiaztatua dago gurasoek irakasleek baino hobeto antzematen dituztela adimen handiko seme-alabak. Hori gertatzen da uste faltsuak eta estereotipo larregi daudelako horien inguruan.

Noiz da garai egokiena Adimen Gaitasun Handiko proba egiteko?

Zenbat eta arinago, hobeto, bereziki nesken kasuan. Izan ere, egiaztatu da neskak adinez aurrera joan ahala, orduan eta identifikatutakoen % baxuagoa dela. Beraz, ez bada garaiz identifikatzen, kamuflatu eta potentziala garatu gabe geratuko da. Ondorioz, epe ertain edo luzean horrek arazoak ekar ditzake: eskola porrota, jarrera disruptiboak klasean, antsietate edo bestelako arazoak arreta egokiaren gabeziaren ondorioz garatuta, eta abar luzea. Funtsean, identifikatu bezain laster hezkuntza arreta egokia emanaz gero, garapen oso bestelakoa izaten dute.

Beharrezkoa da umei probaren berri ematea eta haren helburua azaltzea? Eta proban baiezkota emanaz gero, komenigarria da umeak jakinaren gainean jartzea?

Noski. Haiek nola ikasten duten ikusi nahi dela esatea ondo dago, baita ariketa batzuk eginda haien burua hobeto ezagutzeko lagungarria izango direla ulertaraztea ere.

Ikasle hauek ohartzen dira ez direla ikaskideak bezalakoak, baina ez dute jakiten zergatik. Zerbait pasatzen dela konturatzen dira eta guk edota gurasoek egoerari izena jartzen laguntzeak haien burua hobeto ezagutzeko eta onartzeko balioko die, baita ikaskideak hobeto ulertzeko ere. Izan ere, ez da arraroa izaten haien baitan zeozer txarra dutela pentsatzea eta guztiaren berri ematea beharrezkoa da haien autokontzeptu egokia garatzeko.

Zeintzuk dira Adimen Gaitasun Handiak izatearen onurak eta zailtasunak?

Alderdi kognitiboari dagokionez, arinago ikasten dira gauzak, baina pertsona batzuen ikuspuntutik "larregi pentsatzen dute" eta sufrimendu emozionala eragin diezaieke. Izan ere, kide kognitiboak lortzen ez badituzte, bakardadea sentitu dezakete, ez baitira ulertuak

sentitzen eta ondorioz, arazo emozionalak sor daitezke. Dena den, [bideo](#) honen azken minutuak adierazgarriak dira, nahiz eta dena den interesgarria.

Adimen Gitasun Handiak dituzten haurrak desberdinak sentiarazi daitezke gainontzeko hurrekiko?

Bai. Overexcitability, disinkroniak, goiztiartasuna, umore berezia, intentsitate emozionala... erakusten dute gaitasun handiko ikasleek eta horrek guztiak eragiten du "arraro" modura sentitzea, aurreko bideoan komentatzen den bezala.

Hezkuntzara bideratuta, zein da Adimen Gaitasun Handiko haurrak dituzten familiei gehien ematen diezuen aholkua?

Eskolari egokitzapen curricularra eskatzea eta sakontzeko beharra egonez gero, curriculum aurreratzeko.

Nolako sentimendua edo jarrera ikusten duzue seme-alaba eta gurasoengan honelako berri bat jasotzean?

Askoren kasuan, hasiera batean kostatu egiten zaie egoera onartzea, estereotipoekin askotan bat ez datorrelako haien seme-alaben profila. Gerora, beldurra (jakingo ote dut egoera hau kudeatzen?) ager daiteke, onarpena lortu aurretik. Baina pertsona eta familia bakoitza mundu bat da eta aniztasun handia dago haien artean.

Ikastetxe edota unibertsitateekin harremana duzue? Nolakoa izan ohi da?

Bai, harremana dugu unibertsitate eta eskola batzuekin. Gainera, formazio saioak ematen ditugu horietako batzuetan.

Nolako papera jokatzen du ikastetxeak gaitasun handiko ikasleengan?

Jokatzen du ala jokatu beharko luke? Oraindik ez da nahiko egiten, nahiz eta pixkanaka ezjakitasun orokorra ikastetxeetan urratzen ari dela dirudien. Gainera, irakaslearen arabera aldatu egiten da, ez baita protokolo aplikatu askorik egoten.

Beharrezkoa izan beharko litzateke irakasleek Adimen Gaitasun Handien inguruko formakuntza bat jasotzea?

Premiazkoa. Bestela, ezagutzen ez dena ez da identifikatuko eta ikasleek ez dute jasoko behar duten hezkuntza arreta.

Irakasleek zer jakin edo egin beharko lukete haur horren beharrak asetzeko?

Formazio espezifiko eta sakona jaso beharko lukete, ezin baita dena bi ordutan laburtu.

Zeintzuk dira Adimen Gaitasun Handien inguruan dauden mito ezagunenak? Irakasleek zein uste oker izan ditzakete?

Uste faltsuak asko dira eta [bideoan](#) aipatzen dira horietako batzuk.

Ikerketarako zer nolako baliabideak dituzue? Zenbait baliabideren falta somatzen duzue?

Elkartearen helburua ez da ikerketa egitea. Gurasoen elkartea da, ez gara unibertsitateko ikerlariak.

Zer da benetan elkartearekin eta ikerketekin lortu nahi duzuen? Zer izango litzateke zuentzat onuragarria ongizate pertsonal eta akademikorako?

Gure helburua da horrelako ikasleek legeak onartzen dien hezkuntza arreta benetan izan dezaten lortzea, baita haien garapen kognitibo, emozional eta psikosozialaren alde borrokatzea ere.

Zuen ustez garrantzitsua al da irakasle batek enpatia izatea? Nola eragin dezake enpatia horrek gaitasun handiko ikasleengan? Zer gerta daiteke irakasleak enpatiarik ez badu?

Empatia beharrezkoa da edozein pertsonekin harremanak sortzean, ulertua eta onartua izatea beharrezkoa baita gustura, eroso eta babestua sentitzeko. Honela,

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

norberaren potentzial guztia garatzeko aukerak areagotzen dira, potentzial hori edonolako izanda ere (adimen handikoak barne, beste edozein gizaki legez).


Aitzitik, zure izaera ulertua ez bada (txarto interpretatzen badira norberaren ezaugarriak), arazoak sortuko direla aurreikus daiteke, hau ere edonolako pertsona izanda.

Oro har, aipatzekoa da orain dela urte asko bizi izan nuena. Arreta falta zuen ikasle bati bere ezaugarri bereziak egokiro interpretatzen nituela erakutsi nionean, benetan askatzailea izan zen berarentzat, erabat lasaigarria, alegia. Halaber, beste ikasle batekin bizitakoa aurkikuntza bat izan zen. Ikasle hau "manipulatzaille hutsa" zela uste nuen, baina aurreiritzia guztiz aldatu zitzaidan "gezurrak" bere erritmo kognitibo motelak eragiten zituela jakin nuenean. Niretzako lagungarria izan zen bere profila ezagutzea eta berarentzat ere askatzailea izan zen.

Funtsean, enpatiarik gabe ez ditugu ikasleen errealitateak ulertuko eta ondorioz, sufrimendu ugari sortu ahal dizkiegu irakasleok. Izan ere, hainbat pertsonen historiak irakurri eta entzun ditut, zehazki irakasleen ulertze-ezak eragindako arazo eta gatazkei buruzkoak.

7. Eranskina: Gaitasun Handien inguruko dokumentu batzuk

- [Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak.](#)



- [Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana \(2019-2022\).](#)



- [Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea \(HLBP\).](#)


Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea (HLBP)



- [Adimen gaitasun handiak dituzten ikasleen hezkuntza premiak ebaluatzeko prozesua.](#)



- [Curriculum aberastea.](#)



- [Adimen gaitasun handiko ikasleen hezkuntza. Jarduera-plana.](#)

